



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

KAZETARITZA GRADUA

IKASTURTEA 2017-2018

EKIALDE HURBILEKO ERREFUXIATUEN KRISIA
HEGO EUSKAL HERRIKO EGUNKARIETAN
(2011-2016)

EGILEA: Iosune Gil Larrañaga

ZUZENDARIA: Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabean eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

1 AURKIBIDEA

1	SARRERA	5
2	MARKO TEORIKOA	6
2.1	Aurrekari historikoak.....	6
2.2	Ekialde Hurbileko errefuxiatuen inguruko ikerketak	7
3	HIPOTESIAK ETA IKERGALDERAK	13
4	METODOA	14
4.1	Eduki-analisia	15
4.2	Unibertsoa.....	17
4.3	Lagina	19
4.4	Kategoria-sistemak	20
4.4.1	ID Sekzioa.....	20
4.4.2	Konfigurazio periodistikoa	21
4.4.3	Enkoadreak (frames):.....	22
4.5	Kodelarien arteko fidagarritasun-maila.....	23
5	EMAITZAK	24
5.1	Errefuxiatuak eta kazetaritza-generoak.....	24
5.1.1	Protagonisten rola edo papera	25
5.1.2	Errefuxiatuak adinaren arabera.....	26
5.1.3	Protagonisten generoa.....	27
5.2	Egileak eta errefuxiatuen tratamendua	30
5.3	Errefuxiatuen trataeraren kronologia.....	31
5.4	Errefuxiatuen jatorria.....	34
5.5	Enkoadreak (<i>frames</i>).....	35
5.5.1	Errukia.....	35
5.5.2	Elkartasuna	37
5.5.3	Giza eskubideak.....	38
5.5.4	Politika eta legedia	39
5.5.5	Gatazka edo gerra.....	40
5.5.6	Arrazakeria.....	40
6	ONDORIOAK ETA EZTABAIDA.....	41

6.1	Errefuxiatuak eta informazio-generoak.....	41
6.2	Genero-berdintasuna	42
6.3	Errefuxiatuak urtetik urtera	44
6.4	Enkoadreak.....	46
6.5	Gogoeta nagusiak	49
7	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	50
8	ERANSKINAK	54
8.1	Taulen zerrenda	54

1 SARRERA

Ikerketa honetan, Ekialde Hurbileko errefuxiatuen krisia Hego Euskal Herriko prentsa idatzian nola jaso izan den aztertu nahi da. “Ekialde Hurbileko errefuxiatuak” esaten denean, alegia, egoera sozial, politiko eta ekonomikoa dela eta, beren herrialdeak (Siria, Afganistan, Libano, Israel-Palestina eta Irak, hain zuzen) utzi eta bizimodu hobe baten bila beren bizilekutik joan behar izan duten gizabanakoen multzoa nabarmentzen da.

Errefuxiatu hitzak “babes” bila beren etxea atzean utzi eta beste herrialde batean gordetzen direnei deritze, hain zuzen ere. Kasu honetan Ekialde Hurbiletik atera eta Europan babesa bilatzen saiatu diren gizakiak dira aztergai. Berdin errefuxiatu izan arren, kanpoan utzi dira, beraz, Afrikatik, Hego Amerikatik edo beste hainbat herrialdetatik Europara datozen beste gizataldeen egoera.

Gaur egun mundu-mailan eragin eta garrantzi handia duen gaia da hau. II. Mundu Gerraz geroztik pertsona gehien beren etxeetatik mugiarazi duen krisi humanitarioa da eta hortaz, gure gizartean ere eragin handia duena. Zoritxarrez ez da gauza berria Europako hainbat zonaldeetara errefuxiatuak etengabe iristea, baina azken urteotan fenomeno hau areagotu egin da.

Europako nortasunaren parte da, teorian, Giza Eskubideen babesa eta bermea, eta hori nola lantzen den eta komunikabideek pentsamolde horien gainean duten portaeraren eta errespetuaren edo errespetu ezaren azterketa egitea interesgarria da.

Euskal Herrian ere gaur egun nazionalitate askotako herritarrak bizi gara elkarrekin, eta denak ez gaude bertan borondate propioz. Aldi berean, eta zoritxarrez, denok ez ditugu harrera onarekin onartzen bertara datozenak. Errefuxiatuak munduko lau bazterretatik datoz Europara, baina guztien egoera aztertzea zaila da, noski. Horregatik gaur egun dagoen egoera ulertzeko eta azken urteetan ikusi dugun krisia atzeman ahal izateko egin da gai honen aukeraketa. Gainera, Ekialde Hurbileko errefuxiatuen egoera eta hauei gure inguru hurbileneko komunikabideek ematen dieten trataera aztertzea garrantzitsua da.

Egoera sozial, politiko eta ekonomikoa dela eta, gehienbat, Siria, Afganistan, Libano, Israel-Palestina eta Irak-etik etorri ohi direnak dira Ekialde Hurbileko errefuxiatuak. Zenbait herrialdetara Udaberri Arabiarrak izandako eragin eta ondorioak, eta baita ere konkretuki Libia (kasu honetan Ipar Afrikako herrialdea den arren) eta Siriako Gerra Zibila, izan dira orain arte eta oraingo egoerara ekarri gaituzten gertakari nagusienak, eta baita ere aukeratutako urteak hobesteko arrazoia.

2011-2016ko urtealdia aukeratu da azterketa honetarako, urte horiek Ekialde Hurbileko zenbait herrialdetako gatazketan gakoak izan direlako, eta errefuxiatuen egoera areagotu egin delako 2011tik aurrera Siriako gatazkaren erruz (batez ere 2015ean).

Ikerketa honen helburua, beraz, zera da: gure inguruko komunikabideek Ekialde Hurbileko errefuxiatuen egoeraren inguruan duten ikuspuntu eta posizionamendua erakustea. Gai hori zenbat jorratu den ez ezik zein garrantzi ematen zaien giza eskubide, arrazismo, elkartasun eta antzeko beste balore batzuei. Hori jakiteko ezinbestekoa da ildo ideologiko ugariak kontuan hartzea, eta horregatik egin da lau egunkari ezberdinen aukeraketa.

Trataera informatiboa lantzeko informazio orokorra darabilten eta haien arteko ildo editoriala oso ezberdina duten Hego Euskal Herriko lau egunkari hauek aukeratu dira: *Berria*, *Gara*, *El Correo* eta *Diario de Navarra*.

Hego Euskal Herriko egunkarien hautaketa hiru arrazoi nagusiengatik izan da, hots, gertutasun, oihartzun eta egunkarien arteko ideologia anitzengatik. Gure inguru hurbileneko hedabideek duten errealitatearen irudikapena ikusteko eta aztertzeko egin da hautaketa geografiko hau. Gainera, oso kontuan hartzekoa da, orain arte ez dela inolako ikerketarik egin gai honen inguruan Hego Euskal Herriko hedabideak ardatz hartuta.

2 MARKO TEORIKOA

2.1 Aurrekari historikoak

Udaberri Arabiarra izan zen mundu arabiarrean eta Ekialde Hurbilean (batez ere Sirian) gaur egun dagoen egoera ulertu ahal izateko puntu historiko

garrantzitsuenetako bat. Tunisian hasi zen errebolta segituan beste hainbat herrialde arabiarretan barrena zabaldu zen, arrazoi ezberdinek bultzatuta. Horren eraginez sortutako gatazka nagusiak Egipton eta Tunisian izan ziren, baita Libian eta Sirian ere, non ondoren gerra zibilak hasi ziren (Irazabal, 2017).

Zergatik gertatu ziren momentu horretan? Globalizazioak ekarri zituen ideia demokratikoak izan ziren herrialde arabiarretan altxamenduak ekarri zituztenak, batez ere Afrikako iparraldean. Beste alde batetik, globalizazioaren kalteak ere herrialde arabiarretara zabaldu ziren: krisi ekonomiko mundialak erreboltak egotea eragin zuen, Afrikako iparraldeko herrialde horietan batez ere ondorio kaltegarriak izan zituelarik (Irazabal, 2017).

Nazioarteko migrazioak ez dira inoiz zorizko fenomenoak izan, historiaren momentu konkretu baten isla baizik (Davis, 1974). Beste migratzaileengandik desberdintzeko, hala ere, beharrezkoa da argitzea errefuxiatua dela borondatearen aurka bere burua desplazamendu hori egitera behartuta dagoela ikusten duena. Hala ere, arrazoiak hainbeste eta hain desberdinak direla oharturik, “errefuxiatu” hitzak definizio akademiko bat eskatzen du, gaur egun ematen diren fenomenoak ez direlako lehen ematen ziren berdinak. Momentuz, errefuxiatua bere jatorriko herrialdetik arrisku berezi batengatik ihes egin behar duen pertsona da, Ginebrako Hitzarmenaren parte diren ehun herrialdeetako baten babesa eskatzeko eskubidea duena (Escalona, 1995).

Dagoeneko 65 milioi pertsona baino gehiago mugiarazi ditu errefuxiatuen krisialdiak (NBERen arabera, 2017ko Ekaineko datuetan). II. Mundu Gerratik egon den krisi humanitario latzena izan da eta zenbakiak igotzen ari dira etengabe. 2011tik 2015era batez ere migrazio-zenbakiak modu progresiboan igo dira, Europar Batasuna munduan babes-eskaera gehien jasotzen dituen lurraldea bihurtu zelarik 2012an (CEAR, 2017).

2.2 Ekialde Hurbileko errefuxiatuen inguruko ikerketak

Komunikabideei “esker” errefuxiatu bat zer den interpretatzea errazagoa egin da: gu bezalako pertsona bat da, sostengaezina den egoera batean dagoena eta bere burua ihes egitera behartzen duena, bere bizitza edo familiakoena, arriskuan duena. Europako eta orokorrean mendebaldeko


hedabideek jarrera aldatu beharra izan zuten, laguntza behar zutenei atentzioa eskaintzeko (Ramos, 2015-2016).

Asko dira “errefuxiatu” kontzeptuaren inguruko definizioa zehazteko lan egiten duten ikerketak, baina oinarrian denak bat datoz: babes eske dauden herritarrei egiten diete erreferentzia. Lexikoa aldatu egin da: biolentzia, gaitzespena eta bortxa ez dira desagertu, baina babes-eskaeraren ezaugarria da oinarri nagusia, gehienbat Siriako errefuxiatuekin, ez aldiz, Afrikatik datozen gehienekin (Fassin, 2015).

Ugariak dira ere gure komunikabideek haienganako duten jarrera, eta hala aurkeztuko da lan honetan. Azken urteetan egin diren ikerketetan ere hala ikusi da. Informazio-kantitatea areagotzeaz gain, informazioaren mota aldatzen hasten da. Erakundeek ematen dituzten datu eta lekukotzaz aparte, errefuxiatu propioen testigantzak gehiago agertzen hasten dira komunikabideetan, nolabait haiek izaten hasten dira edukien benetako protagonistak. Irudikapen indibidualista honekin batera, errefuxiatuak modu masiboan eta ibilbide definituetatik etortzen direnez, erraza izan da komunikabideentzat gertaera eta testigantza hauen berri ematea (Castilla, 2016).

Azken boladan ikusi izan den fenomenoari begira, derrigorrez mugitu behar izan diren pertsona gehienak Siriako gerragatik izan dira. Beste zenbait herrialdetan garrantzi handiko gatazkak eman dira azken urteotan, adibidez, Afganistan, Somalian, Iraken, Libian, Kongoko Errepublika Demokratikoan edo Eritrean. Baina esan bezala, “errefuxiatuen krisia” Ekialde Hurbilera mugatu denez, bertako herrialdeetako errealitatea ikertuko da. Europan babes bila dabiltzan errefuxiatuen %51 dira Siriakoak, hurrengoak Afganistangoak, eta jarraian Irak-ekoak %20arekin (Naïr, 2016).

Mediterraneoan da gaur egun munduko mugarik handiena eta arriskutsuena. laz, Europarantz Mediterraneoan zeharkatzen zutela 5.098 pertsona hil ziren, gaur egunera arte erregistratu den zifrarik altuena. Europak jokabide honen aurrean izan duen jarrera oso eztabaidatua izan da. Espainia, konkretuki, Europako herrialdeen artean kuotak gutxien errespetatu dituen herrialdeen artean dago, eta honek bertako hedabideetan ere eragin garrantzitsuak izan ditu, nahiz eta haiek Europan jarri duten erantzukizuna eta baita ere fokua (Castilla, 2016).



Ehunekotan jaso behar ziren errefuxiatuetatik zenbat jaso diren azkenean, herrialde bakoitzean.
/ Iturria: Europako Komisioa

2015. urteko Irailaren 2an migratzaile-talde bat Mediterraneo itsasoa zeharkatzen ari zela, hondoratu egin zen haien itsasontzia. Bertan zihoan jende gehiena hil egin zen, horien artean Aylan Kurdi izeneko ume kurdua, baita bere ama eta anaia ere. Umearen gorpua Turkiako hondartza batean agertu zen eta Nilufer Demir argazkilari turkiarrak momentu hori irudikatu zuen, ondoren mundu osoan zabaldu zen argazkian. Horren argitalpenarekin bazter guztietako kontzientziak hunkitu ziren eta eragin handia izan zuen jendartean, baita politikarien artean ere (eldiario.es, 2015).

Aylan Kurdi umearen gorpua gure munduan gertatzen diren kontraesanak ezagutzera ematen dituen fenomeno ez ezik instituzioei (eta gu guztioi) erronka handiak planteatzen dizkiena da. Hedabideak dira inguratzen gaituzten *pseudoingurune* informatiboak sortzen dituztenak, behar ditugun datuak ematen dizkigutenak gudan gai publikoen inguruan iritzi bat sortzeko. (Ramos, 2015-2016: 07)

GKEek egiten duten kritika nagusietako bat da errefuxiatuen krisiari buruzko tratamendua berandu iritsi dela. Orokorrean, nota baxua edo erdi baxua ematen diete hedabideei arlo honen tratamenduari dagokionez, baina aldiz, kazetarien lan independentea ondo baloratzen dute (Redondo, 2015).

Aylan Kurdi ume kurdua errefuxiatuen krisiaren ikur bihurtu zen eta haren heriotzaz geroztik Europako agintariek bilerak azkartu zituzten. Nazioarteko GKEen eta agintarien jarrerak aldatzen hasi ziren, nolabait. Hitzartu zen errefuxiatu-kopuru horretatik Espainiak 16.231 errefuxiatu jasotzeko betebeharra zeukan, Europako Kontseiluak Bruselan sinatutako akordioaren arabera. Akordio horretan Europako herrialdeek 160.000 errefuxiatu nola banatu zehaztu zen. (Comisión Europea, 2015). Espainiak jaso behar zituen 16.231 horietatik 1.499 pertsonen onarpena egin da bakarrik gaur arte, eta momentuz horietatik 631 jaso dira Estatu osoan. (Gabriela Sánchez, Raúl Sánchez, 2017).

Hego Euskal Herrian 2017ko azaroan babes-eske zeuden errefuxiatuentzako 451 plaza berri sortu zituzten, Madriletik beste 3000 errefuxiatu batzuei babes emango zitzaiela abisua jaso eta gero. Azken datuen arabera (2018ko otsaila), EAEk 418 plaza zeuzkan babes eskatzen zutenentzako. 418 plaza horietatik 1297 errefuxiatu pasa dira krisia hasi zenetik, haietatik 167 errefuxiatu-zelaietan itxaroten zeuden errefuxiatuak ziren eta gainontzekoak beren kabuz iritsi diren babes-eskaleak. Nafarroak, beste alde batetik, 2017. urte osoan 255 errefuxiatu jaso zituen (Cabasés, 2017) (GARA, 2017) (EITB, 2018).

Gainera, Aylan hil eta gero hedabideen jarrera aldatzen hasi zen; hasteko, gaia gehiago tratatuz. Kuantitatiboki aldaketa nabarmena ematen da gertaera horren ondoren (Ruiz, 2015-2016). Gertakizunak hiru hedatze-uhin sortu zituen: eduki informatiboaren *boom* handia, erakunde humanitarioei emandako dohaintza handiagoak eta kazetaritza-eztabaida handia (Redondo, 2015).

Nazioarteko komunikabideei begira, GKEen iritziz, *The Guardian*, *REUTERS*, *The New York Times*, *Al Jazeera*, *Libération* eta *BBC* izan dira gaiaren lanketa onena egin duten egunkariak. Beste alde batetik, hedabideek zifren inguruan egin duten lanaren garrantzia azpimarratzen dute GKEk, adibidez *Red Acoge* espainiarrak. Hala nola, infografiak erakusten zuten Europar Batasunak jaso nahi zituen errefuxiatuen kantitateak barregarriak zirela eta “jende-oldearen” ideia hori gehiegikeria zela; aldiz, Libanok errefuxiatu-kantitate ikaragarriak jasotzen zituela Europa hartzen ari zen neurriekin konparatuz gero eta egoera kaxkarragoetan (Redondo, 2015).

UNESCO nazioarteko erakundearen arabera, hedabideek errefuxiatuen inguruan dauden zenbait mito eta klitxe apurtzen lagundu behar dute: “errefuxiatuak Europaren arazoa dira”, “errefuxiatuek beren borondatez aukeratzen dute emigratzea”, “errefuxiatu gehienak gizonezko gazte eta indartsuak dira”, “errefuxiatuek Europako biztanleen lana ‘lapurtzen’ dute”, “ongizate-estatuaz aprobeztatzen dira”, “eurekin terrorismoa dakarte”, “herrialde garatuak saturatuta daude eta ezin dute jende gehiago jaso”, eta antzekoak... (UNESCO, 2016)

El Mundo eta *El País* egunkari espainiarrak aztertu direnean frogatu ahal izan da ezen Europa dela informazio eta edukietan landu den gai nagusia, eta Europako agintariengan jartzen dela gehienetan errefuxiatuen krisiaren konponbidearen erantzukizuna (Camazón, 2016). Krisi handi honek Europako identitatearen gainean adierazle bezala funtzionatudu, hango balore propioei froga bat eginez. Emaitza zorigaitzokoa izan da, beldurak, hipokresiak, norberekeriak eta arrazismoak jotakoa (Naïr, 2016).

Beste alde batetik, informazio hau tratatzen denean, sentsazionalismoz egiten dela ondorioztatzen da, nahiz eta hedabidearen arabera hori aldatzen den, gehienbat gaur egun nagusiki gailentzen den ezaugarria delako, batzuetan neurri txikian den arren (Catalan, 2016).

Hedabideek herritarren errealitatearen pertzepzioa eta iritzi publikoa kontrolatzea lortzen dute hitzen, eta irudien bidez. Errealitatearen berreraikitze diskurtsiboa, manipulatzaila eta diskriminatzailea bihurtzen da askotan, hedabidearen ideologiaren arabera. Mendebaldeko kultura europarra eta aurreratua, altruista eta babeslea bezala aurkezten dute eta, beste alde batetik; kultura islamista, ordea, pobrea eta atzeratua bezala, xenofobia, beldurra eta holako beste ezaugarri negatiboekin batera lotuta aurkezten dituzte zenbait egunkarik. Jarrera xenofoboak ere ematen dira, adibidez *La Razón* egunkari espainiarrean (Mavrikaki, 2016).

Fatima Tapiak egindako ikerketan, *ABC* eta *El País* aztertu ditu, eta gehien erabiltzen den hitza “errefuxiatu” dela frogatu du, bigarrena “siriar”, jarraian gehien erabiltzen diren hitzak Europar Batasunarekin, legeekin eta mugekin lotuta daudenak dira. Beste alde batetik, “errefuxiatuen alde negatiboa” erakutsi

nahi duten hitzen erabilera handia da oso: “oleada”, “avalancha”, “llegada masiva” eta horrelakoen bidez (Tapia, 2016).

Zenbait hedabidek arrazismoa zabaltzen dute errefuxiatuen inguruan hitz egiten dutenean, erabiltzen duten lengoaiari arrazismoa hauteman daiteke, askotan errefuxiatuaren irudia kutsatzen duten kontzeptuen erabilerarekin. *ABC* eta *El País* egunkari espainiarrek errefuxiatuak potentzialki terroristak izan daitezkeen ideia hori baztertzen dute eta ez dituzte errefuxiatuak Europan azken urteetan gertatu diren atentatuekin lotzen, ezta Europan gertatu diren delinkuentzia-jarduerekin ere. Baina esan bezala, beste alde batetik hitz itsusi zenbait erabiltzen dituzte batzuetan errefuxiatuen inguruan hitz egiteko (Tapia, 2016).

Hedabideetan zabaltzen den argazkien azterketa egitea, beste alde batetik, garrantzitsua ematen du, gehienetan albistea bera baino lehen ikusten dugulako irudia. Joaquín Lopez del Ramok eta Maria Luisa Humanesek egindako *Análisis de contenido de la representación fotográfica de la crisis de los refugiados sirios y su incidencia en el framing visual* ikerketan zera frogatu da: *Le Monde*, *New York Times*, *Telegraph*, *The Guardian*, *El País*, *Folha de Sao Paulo*, *Bild* eta *Wiener Zeitung* hedabideetan zabaltzen diren argazkietako kokapen geografiko nagusia Balkanetako mugetan dauden herrialdeak direla. Horrez gain, ikuspegi indibidualista baztertu eta errefuxiatuak talde gisa identifikatzen dituztela orokorrean (Ramo & Humanes, 2016).

Zenbait adituk neke mediatikoa aurreikusten dute errefuxiatuen gaiarekin, hainbat hedabidek “lehen mailako errefuxiatuak” sortu dituztelako (Siria) eta besteak baztertzeaz gain, arrazoi ekonomikoak, ekologikoak eta sozialak dituzten migratzaileak gutxietsi dituztelako. Adibidez, aurretik aipatu bezala, 2015ean Balkanetako mugak zeharkatzen zituzten migratzaileei begiratzen zitzairen bitartean, Afrikako iparraldetik zetozenei ez zitzairen jaramonik egiten (Redondo, 2015).

Zenbait hedabide digitalek eta hedabide alternatibok errefuxiatuen krisiaren tratamenduarekiko konpromisoa hartu dute azken urteotan eta emaitza onak jaso dituzte orokorrean GKEen partetik, gehienetan egunkariak baino hobeak izan direnak. Horien artean *eldiario.es*-ek bere barnean hartzen duen *Desalambre* atalak, *El Confidencial*ek eta *Revista 5Wk* (Redondo, 2015: 59).

Hau ikusi eta gero, garrantzitsutzat hartu da kontzeptuei eta enkoadreari garrantzia ematen dion azterketa egitea, eta horregatik, ikerketa honetan, edukien hainbat alderdi aztertu dira, nahiz eta hitz konkretuen erabileraren bidez ez izan, bai ezaugarriei begiratuz, eta horretarako erabiltzen diren esapideak identifikatuz. Ikusita Europako politikarien ikuspuntuari hainbeste garrantzi eman zaiola aurretik ikusi diren ikerketa ugarietan, hemen ikertu den kategoria bat “protagonistaren rola” izan da, aztertzeko zenbatetan hitz egiten den errefuxiatuen inguruan eta zenbatetan politikarien inguruan (beste batzuen artean).

Ikusita ere errefuxiatuei ematen zaien irudia eta nola hitz egiten den haiei buruz, bidezkoa ikusi da interpretazio-enkoadreak azterzea: hau da, noiz hitz egiten den “erruki” tonuarekin, noiz ematen den politika edo gatazken inguruko informazioa, etab. Gainera, nazioarteko kazetarien eta *freelanceen* egoera nolakoa den ohartuta, egileen inguruko azterketa ere egin da, haiei buruzko enkoadreak landuta.

3 HIPOTESIAK ETA IKER GALDERAK

Lan honen helburua Hego Euskal Herrian nazioarteko gai garrantzitsu honek, errefuxiatuen krisiak, gaur egunera arte izan duen trataera ikertzea, beste gauza batzuen artean ildo ideologiko desberdinak dituzten egunkarien artean dauden aldeak ikustea. Aurretik aipatu den bezala, haien artean nahiko desberdintasun dituzten lau hedabideen aukeraketa egin da helburu horrekin. Horretarako, ikerketaren helburuak lortzeko, hipotesi hauek planteatu dira:

- *H1: Errefuxiatuei buruzko informazioa albisteen bitartez ematen dute egunkariek.*
- IG1: Albistea da gehien gailentzen den genero informatiboa?
- IG2: Albisteetako protagonistak nagusiki errefuxiatuak dira?
- IG3: Nolako aldea dago egunkarien arteko kazetaritza-generoen erabileran?

- *H2: Emakumeen presentzia txikiagoa da gizonezkoena baino, bai egile-generoari dagokionez eta baita protagonistei dagokienez ere.*

IG1: Protagonisten generoari dagokiola, informazio kopuruan alderik badago?

IG2: Kazetaria emakumea denean, gizonek baino protagonista femenino gehiago ateratzen ditu?

IG3: Emakume kazetariei eta emakume protagonistei dagokienez, aldea dago egunkarien artean?

H3: Aylan Kurdi ume kurduaren heriotza (2015eko Iraila) gertatu zenetik areagotu egin dira gai honen inguruko edukiak aztertutako lau komunikabideetan.

IG1: 2015eko Irailetik errefuxiatuei buruzko artikulu gehiago daude?

IG2: Kurdi umearen ondorengo artikuluak handiagoak dira?

IG3: Ordutik aurrera, ume errefuxiatuei buruzko informazioak presenteago egon dira?

- *H4: Egunkari bakoitzak duen ildo editorialari jarraiki, aztertutako lau egunkarien informazioa erabat ezberdina izan da.*

IG1: *El Correon* eta *Diario de Navarra* legedia eta *politika* markoak gehiago lantzen dira *Gara* eta *Berriarekin* konparatuta?

IG2: *Garan* eta *Berrian* *giza eskubideak* markoa gehiago lantzen da *Diario de Navarra* eta *El Correo*ekin konparatuta?

IG3: *Garan* eta *Berrian* *elkartasuna* eta *errukia* alderdiak gehiago landu dira *Diario de Navarra* eta *El Correon* baino?

4 METODOA

Gaia arakatzeko sortu dudan metodoa (fitxa) azalduko da atal honetan, eta era berean, erabili ditudan oinarri metodologikoak, hau da, hartutako unibertsoa, aukeratutako lagina eta aplikatu dudana fidagarritasun-froga.

4.1 Eduki-analisia

Eduki-analisia egiteko, kuantitatiboa zein kualitatiboa, aukeratutako egunkarietan agertzen diren informazioak eta iritziak oro landu dira hemen: beti ere testuak zein irudiak kontuan hartuz. Interpretazio-markoaren bidez, berriz, testu horietan erabiltzen den kontzeptualizazioa edo diskurtsoa antzeman nahi izan da (errukia, elkartasuna, giza eskubideak, politika eta legeria, gatazka edo gerra eta arrazakeria).

Eduki-analisia, “komunikazioak *aztertze*ko *teknika-sorta da*” eta edozein eduki azter daiteke hura aplikatuz (Zabaleta Urkiola, 1997, 180). Analisi-mota honek testuan eta irudian hartzen du oinarri, eta objektiboa, sistematikoa eta kuantitatiboa izian behar du. Hainbat autorek sustatu du eduki-analisiaren metodoa: Berelsonek (1952,18) haren “objektibotasuna” eta “sistematizazioa” nabarmentzen du; Holstik (1969, 5) “inferentzia”, hau da komunikazio sinboliko edo mezu latenteak; Krippendorffenek, berriz, (1990, 28) ezinbestekotzat hartzen du “testuingurua” kontuan hartzea. Hortik ondorioztatzen da, alegia, eduki-analisia erabiliz interpretaziora edo eremu kualitatibora igaro daitekeela. Beraz, eduki-analisiarekin erabilitako testuen eta irudien ageriko eta ez ageriko mezuak, ezutuak, aztertuko dira ikerketa honetan.

Metodo kualitatiboari dagokionez, *framing* edo interpretazio-markoen teoria izan da kontuan ikerketa honetan. Azken urteotan *framing* teoriaren erabilerak komunikazioaren ikerketetan garrantzia hartu du. Soziologian lantzen hasi zen lehenbizi, interpretazio-prozesuak eta gizabanakoen esangurak deskribatzeko tresna gisa, soziologoak errealitatea ezagutzeko erabiltzen hasi ziren tresna gisa, alegia (Sádaba, 2001). Frame edo markoen azterketak egoera sozial konkretuen azterketarako baliagarriak izan dira. Hedabideak testuinguru honetan boterezko agente bezala agertzen dira, marko sozial horien sortzaile gisa askotan (Tarrow, 2016).

Praktika profesionalak eta informazioaren objektibotasuna aztertzeke izan da erabilia teoria hau komunikazioaren munduan batez ere, kasu honetan kazetarien eta hedabideen lan egiteko modua aztertzeke teknika gisa. Irudietan bezala, testuetan ere *framing* teoriaren azterketa ere egin daiteke hitzen, konnotazioen eta gauzak esateko moduen bidez. Baina *frame* edo enkoadre

horiek ez daude bakarrik testu eta irudietan: hartzailea, igorlea eta informazioa zabaltzen den kultura ere barruan daude. (Sádaba, 2001)

Horregatik egin da ikerketa honetan *frame* edo enkoadreren azterketa, beste lanetan ikusi ahal izan den moduan hitzen azterketa soilak ez duelako aski informazio ematen hedabideetako edukien trataera guztia ezagutzeko, eta hizkuntza, egilearen rola, artikulu-mota, eta honelako alderdiek ere erantzukizun handia dutelako informazioaren trataeran eta praktika profesionalen kalitatean.

Gainera, Espainiako nahiz Europako beste herrialdeetako hedabideak aztertzen dituzten ikerketak aurkitu diren arren, ez da topatu Hego Euskal Herriko hedabideak gai honen inguruan egiten duten trataera aztertzen duen ikerketarik. Hala ere, beste ikerketetatik ateratako ondorioak aberasgarriak izan dira ikerketa hau egiterako orduan, baita hipotesiak ateratzeko garaian ere.

Hitz asko erabili izan dira interpretazio-markoa aipatzeko: Framing, enkoadrea, markoa eta beste hainbat, informazio zehatz baten kontzeptualizazioa edo bertan erabiltzen den diskurtsoa antzemateko, azken finean mapa edo eskema fidagarri bat eduki eta mamia jaso ahal izateko xehetasun guztiz, dela deskriptibo hutsa, dela adierazgarritasun osokoa.

Goffmanek (1986, 10) zioen frameak “eskemak” antolatzen dituztela eta azken finean “egitura mentalak” osatzen dituztela datu objektiboekin; Tuchmanek (1978, 2) seinatu zuen medio bakoitzak errealitatea ikusteko “leiho” bat daukala, modu espezifiko bat; Entmanentzat (1993, 52) enkoadratzea “hautatzea” eta “nabarmentzea” da; Reesek (2001, 7) adierazten du, azken finean enkoadreaz ari garenean kontatzen ari gara gertaerak kontatzen dituzten aktoreek zer-nolako “zetzua” ematen dioten kazetaritzako baliabideak erabiliz; Lakoffek, berriz, dio “mundua ikusten laguntzen diguten egitura mentalak” eta hizkuntzak eraikitzen dituela marko horiek (Lakoff 2007,17).

4.2 Unibertsoa

Ikerketa hau egiteko ez da Hego Euskal Herriko hedabideen zentsoa erabili, jakina, ez eta hedabide idatzien zentsoa ere, baizik eta unibertso konkretu bat aukeratu da, lau egunkari hain zuzen, Hego Euskal Herriko eskualde bakoitzeko bana: *Berría*, *Gara*, *El Correo* eta *Diario de Navarra*, bakoitza bere ezaugarriekin, behe-rago azalduko denez. Egia da tartean ez dagoela Arabako egunkaririk, eta aldiz Gipuzkoan hedapen handia duten bi daudela, baina batetik ez dago besteen maila bereko egunkari arabar soil-soila, eta bestaldetik *Berría* kasu berezia da, izan ere Gipuzkoan editatzen den arren euskarazko bakarra baita eta Euskal Herriko lurralde osora hedatzen da, Arabara ere bai.

Hala bada, hauexek dira aukeratutako lau egunkarien ezaugarri oinarritzkoenak:

Berría, gaur egun euskara hutsean Euskal Herri osoan hedatzen den interes orokorreko egunkari bakarra da. Egia esate aldera *Berría* astean sei egunez editatzen da, astelehenean ez baita kaleratzen. Izatez *Hernaniko Kronika* da Euskal Herrian egunero argitaratzen den egunkari bakarra, baina oso orri gutxikoa da, eta lokala). Beste berezitasuna da, egunkari honek ez duela editorialik argitaratzen bere iritzi atalean.

Euskaldunon Egunkariaren itxiera eta gero haren erreleboa hartu zuen *Berriak*, 2003an. Ildo editorial oso nabarmena ez duen arren alderdi bati egokituta, euskal identitatearekin identifikatu eta euskal kulturaren bultzatzaile gisa jarduten duen egunkaria da. Egunkariaren gaur egungo zuzendaria Martxelo Otamendi da.

Gara, gehien bat gaztelaniaz (eta ezer gutxi euskaraz) argitaratzen duen interes orokorreko egunkaria da, egunero kaleratzen dena eta Euskal Herri osoan zabaltzen dena.

Egin egunkariaren errelebo bezala jaio zen, eta kanpaina herrikoi baten ondoren lehenbiziko alea kaleratu zuen 1999ko urtarrilaren 30ean. Ildo ideologikoa ezker abertzalearen gertukoa du eta gai sozialekin identifikatzen da. Egunkariak gain 7K izeneko aldizkari gehigarria ere argitaratzen da

igandero egunkariarekin batera eskaintzen dena, eta erreportaje sakonak eta elkarrizketak biltzen dituena. Gaur egun, egunkariaren zuzendaria Iñaki Soto da.

El Correo, gaztelaniaz argitaratzen den interes orokorreko egunkaria da, Vocento taldearen parte dena gaur egun. Bizkaia eta Araban gehien irakurtzen den egunkaria da, zonaldearen arabera hainbat edizio dituena. Egunero kaleratzen da. Aurretik egunkaria *El Correo Español-El Pueblo Vasco* izan zen, *El Correo Español* eta *El Pueblo Vasco* egunkarien bateratzearen ondorioz sortua, lehenengoa *Falangeren* menpekoa.

Bere ildo editoriala kontserbadorea eta eskuinaldekoa da historikoki. Gaur egun egunkariaren zuzendaria Jose Miguel Santamaría da, eta Bilbon du egoitza nagusia.

Diario de Navarra Iruñean egoitza duen interes orokorreko egunkaria da, Nafarroan irakurtzen diren bi egunkari nagusietako bat. 1903an zabaldu zen eta orduz geroztik argitaratu da geldiunerik gabe. Nafarroako foruaren aldekoa, kontserbadorea eta monarkiaren aldekoa da egunkariaren ildo ideologikoa, eta UPN alderdiaren gertukoa. Gaur egungo zuzendaria Inés Artajo-Ayesa da.

Denborari dagokionez, 2011-2016 urtealdiaren aukeraketa egin da, urte horiek Ekialde Hurbileko zenbait herrialdetako gatazketan gako izan direlako, eta errefuxiatuen egoera areagotu egin delako 2011tik aurrera Siriako gatazka dela-eta (batez ere 2015ean). Ekialde Hurbileko herrialde ezberdinetan Udaberri Arabiarrak izandako eragin eta ondorioengatik eta baita ere konkretuki Libia (kasu honetan Ipar Afrikako herrialdea den arren) eta Siriako Gerra Zibila abiapuntu izanda, urte horiek izan dira orain arte eta oraingo egoerara ekarri gaituzten gertakari nagusienetarikoak jasotzen dituztenak.

Azkenik, edukiari dagokionez, Ekialde Hurbileko errefuxiatuei buruz, aipatutako denbora-tartean aukerako lau egunkarietan argitaratu den informazio eta iritzi guztiak jaso ditut, testualak zein grafikoak, edozein delarik argitaratzeko erabili den egunkariko saila.

4.3 Lagina

Ikerketa aste konposatuaren teknikaren arabera moldatu da, egunak ausazko eran aukeratuz. Sei urteko egunkari-aleak aztertu dira lau egunkarietan, bider zazpi egun astean; beraz, 168 egunkari-ale erabili beharko lirateke orotara. Urteko 365 egun zati asteko 7 egun, n-tartea lortzen da kadentzia bilatzeko; kasu honetan, 52a da lortzen den tarte maximoa. Erabiliko duguna, ordea, 50eko tartea izango da. Izan ere, aste bat osatu nahi ez denez, baizik aste konposatua, eta beti egun berbera ere erabili nahi ez denez, astearen jarraikortasun naturala errespetatzeko tarte egokia 50ekoa da. Nahiz eta ondoren, hori aldatzen joaten den egunaren arabera, egunkari bakoitzak egun desberdin batean jorratzen duelako ikertutako gaia. Kasu honetan, salto handiak egin behar izan dira edukiak aurkitu ahal izateko, baina hauze izan da hasiera batean aukeratutako lagina.

Ausaz jokatuz lortu den egunaren zenbakia 10a izan da; hilabetearen zenbaki ausazkoa 8a; beraz, abuztuaren 10a da hasierako n-zenbakia. Ordenagailuz eginiko taularen arabera honako hau da ikerketarako erabili den aste konposatua, urterik urte aplikatuz 2011 eta 2016 bitartean. Seinalatutako egunean informaziorik ez badago, hurrengo egunera pasatuko da, edo hurbilenera, beti aurrera begira, ez atzeko egunetara.

- Asteazkena (2011/08/10)
- Osteguna (2011/09/29)
- Ostirala (2011/11/18)
- Larunbata (2011/01/08)
- Igandea (2011/02/27)
- Astelehena (2011/04/18)
- Asteartea (2011/06/07)

Lagin hori ahal izan den neurrian errespetatu da. Lau egunkarietako batek egun konkretuan ez duenean errefuxiatuen inguruko ezer argitaratu, hurrengo eguneko alera pasatu da informazio bila. Horrela egunez egun egin da salto,

zerbait agertu arte, bain beti aste konposatuaren hurrengo egunera iritsi baino lehen. Azkenean, aztertu diren egunak hauexek izan dira, egunkari bakoitzeko:

Berria:	Diario de Navarra	El Correo	Gara
19/06/2012, asteartea	26/07/2012, osteguna	10/04/2012, asteartea	08/01/2011, larunbata
16/09/2012, igandea	26/02/2012, asteartea	24/04/2012, asteartea	12/06/2011, igandea
03/10/2012,asteazkena	21/06/2013, ostirala	30/05/2012, asteazkena	22/04/2012, igandea
08/01/2013, asteartea	03/10/2013, osteguna	05/03/2013, asteartea	30/07/2012, astelehena
01/06/2013, osteguna	27/12/2013, ostirala	10/08/2013, larunbata	12/09/2012,asteazkena
11/06/2013, asteartea	13/12/2014, larunbata	20/11/2013, asteazkena	23/10/2012, asteartea
09/01/2014, osteguna	19/04/2015, igandea	09/01/2014, osteguna	19/11/2012, astelehena
05/03/2014, asteazkena	07/06/2015, igandea	27/02/2014, osteguna	11/01/2013, ostirala
11/01/2015, igandea	10/08/2015, astelehena	12/06/2014, osteguna	18/05/2013, larunbata
21/03/2015, larunbata	29/09/2015, asteartea	13/08/2014, asteazkena	24/08/2013, larunbata
19/08/2015, asteazkena	14/12/2015, astelehena	03/12/2014, asteazkena	26/10/2013, larunbata
30/09/2015, asteazkena	09/01/2016, larunbata	06/05/2015, asteazkena	10/12/2013, asteartea
19/11/2015, osteguna	27/02/2016, larunbata	07/06/2015, igandea	10/04/2014, osteguna
09/01/2016, larunbata	18/04/2016, astelehena	29/09/2015, asteartea	08/07/2014, asteartea
19/04/2016, asteartea	08/06/2016, asteazkena	18/11/2015, asteazkena	05/08/2014, asteartea
08/06/2016, asteazkena	14/08/2016, igandea	09/01/2016, larunbata	16/08/2014, larunbata
12/08/2016, ostirala	02/10/2016, igandea	27/02/2016, larunbata	08/01/2015, osteguna
29/09/2016, osteguna	18/11/2016, ostirala	29/09/2016, osteguna	27/02/2016, ostirala
19/11/2016, larunbata			19/04/2015, igandea
			31/05/2015, igandea
			12/06/2015, ostirala
			10/08/2015, astelehena
			29/09/2015, asteartea
			01/10/2015, osteguna
			21/11/2015, larunbata
			12/01/2016,asteartea
			18/04/2016, astelehena
			07/06/2016, asteartea
			02/10/2016, igandea
			19/11/2016, larunbata

4.4 Kategoria-sistemak

Kategoria-sistemak hiru sekziotan banatuta daude: identifikazioa (ID sekzioa), konfigurazio periodistikoa eta enkoadre edo interpretazio-markoak (framing). Sekzio bakoitzean hainbat kategoria-sistema daude eta horiekin guztiekin prestatu da kodetze-fitxa.

4.4.1 ID Sekzioa

- **ID Zenbakia:** Artikuluaren identifikazio-zenbakia.
- **Data:** Artikuluaren data (2011-2016 artekoa, noski).
- **Urtea:** Artikuluaren dataren urtea (2011-2016 artekoa).

- **Egunkaria:** *Berria*, *Gara*, *El Correo* edo *Diario de Navarrari* dagokion (hurrenez hurren, Ber, Ga, Co eta Dn laburdurak erabiliz) azaltzen da.
- **Sintesi-lerroa:** Artikuluak zeri buruz hitz egiten duen, laburbilduz azalduta.
- **Sekzioa:** Egunkariaren zein ataletan dagoen artikulua markatzen da. Nahiz eta honela ez deitu, baliokide antzekoenari egokitzen zaio, batzuetan “Euskal Herria”, “Gizartea” bezala agertu daiteke, adibidez: politika, nazioartea, gizartea, kirola, kultura, Euskal Herria eta azkena.
- **Hizkuntza:** Gaztelania edo euskara erabili den bilatzen da (Gaz eta Eus laburdurekin, hurrenez hurren).

4.4.2 Konfigurazio periodistikoa

Azpiatal honetan kazetaritzako alderdi ohiko batzuk zerrendatuko dira; alegia, tamaina, irudi eta testuen izaera, generoa, adina, rola, etab.

- **Tamaina:** 3 tamaina-mota erabili dira artikuluen neurria deskribatzeko: txikia, 1 zenbakiarekin; ertaina, 2 zenbakiarekin eta handia, 3 zenbakiarekin. Gutxi gorabehera, 1 tamainakoak paragrafo bat edo bi hartzen dituzten eduki laburrak izango lirateke; ertainak orrialde erdia edo herena hartzen dutenak, eta handiak orrialde osoa edo gehiago hartzen duten edukiek osatutakoak.
- **Irudi/testua 1:** Sintesi-lerroa irudi edo testu bati dagokion.
- **Irudi/testua 2:** Irudia denean, irudi-mota hauen artean aukeratu behar da: argazkia (arg), grafikoa (gra), bineta (bi), infografia (infg).
- **Kazetaritza-generoa 1:** Iritzi-generoa (iri) edo informazio-generoa (info) den.
- **Kazetaritza-generoa 2:** Horietako baten barruan, azpi-generoa aukeratu: editoriala (ed), artikulua (art), zutabea (zu), albistea (alb), erreportajea (erre), kronika (kro), elkarrizketa (elk) eta tartekia (tar).
- **Identifikazioa:** Nork idatzi duen artikulua: kazetari batek (kaz), aditu batek (ad), berri-agentzia batek hedatutako informazioa den (age), erredakzioak sinatutakoa (erre), kolaboratzaile batek egina (kol), edo aldiz, egiletza hutsik dagoen (huts).

- **Egile-generoa:** Zein sexu-talde sozialari dagokion autorearen identitatea: emakumea (ema) edo gizona (giz) (ez badago zehaztuta edo inzialak erabiltzen badira, hutsik utzi da).
- **Non 1:** Zein kontinente edo zonalde orokorrari dagokion. Informazio-motagatik hauek dira orokorrak: Europa, Mediterranea, Ekialde Hurbila (eta egongo balitz, Amerika, Afrika, etab.).
- **Non 2:** Zonalde orokor horren barruan gehiago konkretatu, nazio edo herrialdearen izena aipatuz (Espainia, Alemania, Siria, Afganistan...)
- **Zer 1:** Zein den artikuluaen gai nagusia: Bidaia, giza eskubideak, bizi-baldintzak, politika...
- **Bakan/multzo:** Protagonista pertsona bakarra (bakan) den edo talde bat (multzo).
- **Generoa:** Pertsona edo giza talde horri dagokion sexu-talde soziala zehaztuz emakumea (ema) edo gizona (giz) den.
- **Adina:** Zein adin-taldetan kokatzen den, 3 hauen artean aukeratuz: adin txikikoa, 18tik beherakoa (txiki); helduak, 18-65 artekoak (heldu) edo zaharrak, 65tik gorakoak (zahar).
- **Rola:** Zein kolektibo edo talde sozial konkretukoa den/diren protagonista/k: politikaria (pol), errefuxiatua (erre), solidarioa (sol)...
- **Nongoak diren:** Protagonistaren jatorriko herrialdea konkretatu.

4.4.3 Enkoadreak (frames):

Enkoadreetan testua denean, interpretazio-markoa hitzen bidez (inplizitu edo esplizituki izanda ere) azalduko da bakoitzaren zutabearen ondoko zutabearen ("bai") agertzen denean. Argazkia denean, aldiz, argazkiaren interpretazioa egingo da, bertan ikusten denean oinarrituta. Adibidez, "errukia" zutabearen "bai" jartzen bada zera azaltzen delako, ondoko zutabearen, "errukia adierazteko hitzak edo esaldiak" dioen horretan, konkretatuko da zein hitzekin edo interpretazioekin agertzen den errukia islatuta egunkariaren eduki horretan.

Aukeratu diren interpretazio-marckoak eta gai honekiko lotura sortzeko definizioak ondoko hauek dira.

- **Errukia:** Norbait beste gizabanako edo talde baten gaitzak edo zoritxarrak deitoratu eta haietan parte hartzera bultzatzen duen sentimena.
- **Elkartasuna:** Besteen egoerarekiko enpatia edo laguntza-jarrera erakustea, zenbaitetan besteei eskua luzatzeko prestutasun-jarrera transmitituz.
- **Giza eskubideak:** Gizakioi babesten gaituzten arauak dira, bidegabekeriak paira ez ditzagun. Hala nola, politikan parte hartzeko eskubidea, adierazpen askatasuna, erlijiorako askatasuna eta etxebizitza duina izateko eskubidea hartzen ditu bere barnean.
- **Politika eta legedia:** Zientzia politikoaren arloan hartzen diren neurriak eta errefuxiatuenganako eraginak dituzten lege eta arau politikoak barne hartzen ditu alderdi honek.
- **Gatazka edo gerra:** Kasu honetan, Ekialde Hurbileko gatazka, gerra, edo norgehiagoka armatu nahiz politikoei egiten die erreferentzia. Hala nola, Siriako gerrari edo Israel eta Palestinako gatazka ideologiko eta armatuari.
- **Arrazismoa:** Kanpotik (kasu honetan, Europako biztanleen aldetik), errefuxiatuen eta migratzaileen aurkako jarrerak identifikatzea.

Beraz, horiei dagokien zutabearen “bai” jartzekotan, ondoan...

- Testua denean, testuaren zatia jarriko da.
- Irudia denean, irudiaren interpretazioa idatziko da.

4.5 Kodelarien arteko fidagarritasun-maila

Kategoria-sistemak eta horien definizioak fidagarriak eta baliagarriak direla bermatzeko derrigorrezko den "*kodelarien arteko fidagarritasun-froga*" egin da, Holsti-ren formula aplikatuz (Holsti, 1969 :Zabaleta, 1997:226). Honela, albiste eta edukien kodetzeak koherentzia mantenduko du.

Fidagarritasun-froga hau egiteko honela jokatu da:

- Hiru kodelarik 10 item berdinak aztertu dituzte (haien artean erabat desberdinak edukiaren, gaiaren, eta egile-profilaren aldetik). 10 item horren bakoitzean 33 kategoria zeuden, beraz, guztira 330 kategoria aztertu du kodelari bakoitzak.
- Item horien sailkapena egin da aurreko puntuetan azaldu diren kategoria-sistema horiek guztiak sailkatuta.

- Sailkapen guztiak bildu eta emaitzekin fidagarritasuna aztertu da. Horretarako Holstiren formula erabili da, eta hauxe da formula hori:

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2M}{N_1 + N_2}$$

M= kodelariak bat datozen kodetze-kopurua

N1= Lehen kodelari batek egindako kodetze-kopurua

N2= Beste kodelari batek egindako kodetze-kopurua

- Formula hori bi aldiz aplikatu da, bi N2 (kodelari) desberdinekin, bi kide aukeratu baitira prozesu honetarako.
 - Lehen kodelariarekin egindako konparaketan, 0'91eko emaitza atera da.
 - Bigarren kodelariarekin egindako konparaketan, 0'90koa.
- Beraz, formularen emaitza minimoa 0'90 izanik, fidagarritasun-froga pasa da; ikerketaren froga bete da, alegia.

5 EMAITZAK

Behin item guztien sailkapenak eta Holstiren formulak azaltzen duen frogapena eginda, emaitzak osatzeko taulak sortu dira. Taula horietan hipotesi eta iker-galdera guztiei erantzuna emateko taulak sortu dira, ikerketan aztertutako 100 item horiek emandako datu guztiekin. Jarraian, emaitzak emango dira, taulen eta azalpenen bidez.

5.1 Errefuxiatuak eta kazetaritza-generoak

Errefuxiatuen inguruko eduki periodistikoak generoka nola banatzen diren ikertu da hemen. Kontuan izanik guztira 100 item edo eduki periodistiko kodetu direla (ikus Taula 1), 38 albiste izan dira; 28 kronika; 24 erreportaje; 6 iritzi-artikulu; 3 elkarrizketa eta editorial bat (oharra: nola eta kopuru osoa ehun den, portzentajeak ere berdinak dira).

Generoen inguruan kategoria orokorragoak egiten badira, ikusten da informazioaren multzoa dela nagusi, 90 item baitaude, alegia, %90. Aldiz, iritziaren alorrean 7 artikulu baino ez daude (%7) eta elkarrizketak, beren baitan

bakarriz utziz, genero berezia delako, hiru (%3), baina azken batean erabaki da informazioaren barruan sartzea eta informazio-genero bezala hartzea elkarrizketa. Beraz, informazioa itemen %93ari dagokio eta iritzia %7ari.

Taula1: Item guztiak kazetaritza-generoka sailkatuta, 2011-2016 (%)

	Informazioa						Iritzia				Guztira
	Alb.	Art.	Elk.	Erre.	Kro.	Guztira info.	Alb.	Art.	Edi.	Guztira iritzia	
Berria	%8	%0	%1	%8	%7	%24	%0	%0	%0	%0	%24
El Correo	%8	%0	%0	%7	%5	%20	%0	%0	%0	%0	%20
Diario de Navarra	%6	%0	%0	%1	%5	%12	%1	%4		%5	%17
Gara	%15	%1	%2	%8	%11	%37		%1	%1	%2	%39
Guztira	%37	%1	%3	%24	%28	%93	%1	%5	%1	%7	%100

N = 100. Iturria: Autorea. Oharra: (1) *Berriak* ez du editorialik egiten.

Aurreko emaitza orokor hori egunkarika xehetzen badugu, ikusten dugu aldea dagoela egunkarien artean, baina hala ere, orokorrean jokabide berbera dute lau egunkariek: informazio askoz gehiago argitaratzen dute iritzia baino, eta albiste eta kronikak gailentzen dira beste kazeta-generoen artean.

Albiste gehien lantzen dituen *Gara* da eta besteen artean oreka mantentzen da; erreportaje-kopurua nahiko orekatuta dago *Diario de Navarra* egunkarian izan ezik, bakarra duelarik; ikus daitekeen moduan dagoen editorial bakarra *Garak* argitaratu du, eta *El Correo* eta *Diario de Navarra* egunkariek ez dute elkarrizketarik plazaratu.

5.1.1 Protagonisten rola edo papera

Egindako azterketan frogatu den moduan, protagonistak gehienetan errefuxiatuak dira. Konkreteki landutako informazioan %73'4an eta iritziaren %100ean dira errefuxiatuak protagonista. Politikariek informazioaren %15'8aren protagonistak dira eta %3'5ean, solidarioak. Hedabideen artean badago aldea:

El Correon ez da agertzen solidarioak protagonista gisa duen informaziorik, *Diario de Navarra* da errefuxiatuen inguruko informazio gutxien lantzen duen egunkaria eta *Berria* politikariei protagonismo gutxien ematen

diena. Proporzionalki, alde handiena duena protagonisten rola artean, *Gara* da, errefuxiatuak gehien lantzen duen egunkaria baita.

Iritzi-arloan, aldiz, errefuxiatuak dira beti protagonistak, oso artikulugutxi dauden arren, eta dauden iritzi-artikulugutxi horiek *Diario de Navarra* edo *Garak* idatziak izan dira.

Taula2: Protagonisten rola sintesi-lerroka

	Informazioa					Iritzia		Guztira
	Beste.	Erre.	Pol.	Soli.	Guztira info.	Erre	Guztira iritzia	
Berria	%1,0	%15,1	%0,5	%5,2	%21,9	%0,0	%0,0	%21,9
El Correo	%0,0	%18,8	%3,6	%0,0	%22,4	%0,0	%0,0	%22,4
Diario de Navarra	%0,5	%8,3	%2,1	%2,1	%13,0	%3,1	%3,1	%16,1
Gara	%0,0	%31,3	%4,7	%2,6	%38,5	%1,0	%1,0	%39,6
Guztira	%1,6	%73,4	%10,9	%9,9	%95,8	%4,2	%4,2	%100,0

Iturria: Autorea

5.1.2 Errefuxiatuak adinaren arabera

Errefuxiatuen adinari erreparatzen badiogu, generoarekin gertatzen denaren antzekoa ikus dezakegu. Gehienetan ez da agertzen protagonisten adina. Egunkarika desglosatzen badugu, *Berriak* helduen kopurua du handiena eta gainontzekoek adina zehaztu gabe dute edo adin askotako jendea agertzen deneko taldea dute nagusi.

Diario de Navarra eta *Berriak* ia kopuru berdina dute helduen eta adina zehaztu gabe dutenen edo adin ugariako giza taldea lantzen den artean; *El Correo* zehaztu gabeko taldea du nagusi, alde zertxobait handiagoarekin. (Ikus 3 taula). Adin txikikoek hartzen duten lekua oso txikia da. Iritzian ez zaie inolako aipamenik egiten, eta informazioan *Berriak* eta *Garak* bakarrik jorratzen dute nolabaiteko informazioa hauek protagonista direnean.

Taula 3: Protagonisten adina informazio eta iritzietan (2011-2016)

	Informazioa				Iritzia		Guztira
	ED	heldu	txiki	Guztira info.	ED	Guztira iritzia	
Berria	%9,9	%10,4	%1,6	%21,9	%0,0	%0,0	%21,9
El Correo	%14,1	%8,3	%0	%22,4	%0,0	%0,0	%22,4
Diario de Navarra	%6,8	%6,3	%0	%13,0	%3,1	%3,1	%16,1
Gara	%20,3	%14,6	%3,6	%38,5	%1,0	%1,0	%39,6
Guztira	%51,0	%39,6	%5,2	%95,8	%4,2	%4,2	%100,0

Iturria: Autorea

5.1.3 Protagonisten generoa

Orokorrean nabaria da aldea, batez ere generoa zehaztu gabe dutenen eta beste bien artean. Baina dena den, alde handia dago emakumeen eta gizonezkoen artean. *Berria* da emakumeen presentzia handiena duen egunkaria gizonezkoen presentziarekin alderatuta, baina oso alde txikiarekin. Beste hiru egunkariek gizonezko gehiago dituzte protagonista gisa beren edukietan. Iritziari dagokionez, sexua ez da zehazten ezta artikulu batean ere.

Proportzioan, *Gara* da alde handiagoa duena sexu-generoaren artean, %4'7 bakarrik delako emakumeei dagokienez informazioa, gizonek hartzen duten %11'5arekin parekatuta. Ez dagokienak ere, guztietatik *Gararena* da kantitate handiena duena: %22'4; *El Correek* %15'1; *Berriak* %13 eta *Diario de Navarrak* %6'8. Dena den, *El Correek* eta *Diario de Navarrak* alde handia ez duten arren beraien informazioan landutako protagonisten generoen artean, oraindik informazio gutxiago dute emakumeen inguruan *Garak* eta *Berriak* baino.

Taula 5: Protagonisten generoa (sintesi-lerro guztietan)

	Informazioa				Iritzia		Guztira
	ED. (1)	Emakumea	Gizona	Guztira info.	ED.	Guztira iritzia	
Berría	%13,0	%5,7	%3,1	21,9	%0,0	%0,0	%21,9
El Correo	%15,1	%2,6	%4,7	22,4	%0,0	%0,0	%22,4
Diario de Navarra	%6,8	%1,6	%4,7	13,0	%3,1	%3,1	%16,1
Gara	%22,4	%4,7	%11,5	38,5	%1,0	%1,0	%39,6
Guztira	%57,3	%14,	%24,0	95,8	%4,2	%4,2	%100,0

ED = Ez dagokio, giza-talde edo sexu bat baino gehiago dagoenean. Iturria: Autorea

Protagonisten generoaren sailkapena errefuxiatuetara mugatzen badugu, aldaketa txikiak antzematen dira, baina badaude: *Berriak* dagoeneko ez ditu emakumeakgizonezkoak baino gehiago lantzen eta *El Correek* eta *Diario de Navarrak* nahiko parekatuta dute bi generoen erabilera (Ikus taula 6). Ez dagokien kategoria da handiena oraindik, lehen baino gehiago. Hau, gure albistegietan normalean errefuxiatuak taldean agertzen direlako izaten da.

Taula 6: Protagonisten generoa errefuxiatuak direnean

	Informazioa				Iritzia		Guztira
	ED.	Emakumea	Gizona	Guztira info.	ED.	Guztira iri.	
Berría	%12,8	%2,7	%4,0	%19,5	%0,0	%0,0	%19,5
El Correo	%17,4	%3,4	%3,4	%24,2	%0,0	%0,0	%24,2
Diario de Navara	%8,7	%1,3	%0,7	%10,7	%4,0	%4,0	%14,8
Gara	%22,8	%6,0	%11,4	%40,3	%1,3	%1,3	%41,6
Guztira	%61,7	%13,4	%19,5	%94,6	%5,4	%5,4	%100,0

Iturria: Autorea

Emakumeen presentzia beti da gai eztabaidagarria, oso kantitate baxua izaten delako gehienetan, eta hori baino, txikiagoa ikusi ohi dugu gizonezkoen presentziarekin alderatzen badugu.

Informazioaren alderdian, *Berría* eta *Diario de Navarra* dira emakumeen tratamendu txikiena eskaintzen dutenak, eta irudi eta testuetan garrantzi parekoa ematen diotenak ere; *El Correek* oso tratamendu txikia ematen die testuan, baina lau aldiz gehiago irudietan; eta *Garak*, emakumeen irudi kopuru

bikoitza du testuena baino. Esanguratsua da iritzian inolako erreferentziarik ez egotea emakumeei buruz, ez testuari dagokionez ez eta irudiei dagokionez ere.

Zenbait alditan aipatu den moduan, errefuxiatuak protagonistak direnean, adinaren eta generoaren trataera hain gutxi zehaztea arrazoi arrunt batengatik izaten da: errefuxiatuak talde bezala lantzen dituzte hedabideek eta batez ere egunkariak, eta horregatik ez dira sartzen horien adin eta generoa zehazten. Hurrengo taulari erreparatuz protagonistak bakanak edo multzoa diren ikusten da (Ikus taula 7).

Errefuxiatuak iritzian jorratzen direnean, beti izan da multzoka; oso kantitate txikia izan arren hauen inguruan idatzi denean, multzoka izan da (aurretik aipatu den bezala, *Diario de Navarra* eta *Gara* egunkarietan bakarrik ikus dezakegu iritzia).

Informazioan, multzoka agertu dira errefuxiatuak gehienetan. *Berria* eta *Diario de Navarra* dira protagonista gisa pertsona bakarrak gutxien landu duten egunkariak (%1'3 bakoitzak). *El Correo* ere oso gutxi izan ditu protagonista bakanak. Pertsona bakan gehien landu dituen egunkaria *Gara* izan da (%9'4) baina zenbaki txikia da proportzioan hartzen badugu, *Garak* informazio guztiaren (%40'3) eta baita eduki guztien (%41'6) ia erdia lantzen baitu, eta hortaz, proportzioan trataera hori oso txikia da.

Taula 7: Errefuxiatuak bakan edo multzoa direnean (2011-2016)

	Informazioa			Iritzia		Guztira
	Bakan	Multzo	Guztira info.	multzo	Guztira iri.	
Berria	%1,3	%18,1	%19,5	%0,0	%0,0	%19,5
El Correo	%3,4	%20,8	%24,2	%0,0	%0,0	%24,2
Diario de Navarra	%1,3	%9,4	%10,7	%4,0	%4,0	%14,8
Gara	%9,4	%30,9	%40,3	%1,3	%1,3	%41,6
Guztira	%15,4	%79,2	%94,6	%5,4	%5,4	%100,0

Iturria: Autorea

5.2 Egileak eta errefuxiatuen tratamendua

Aurreko atalaren harira, eduki informatiboetako protagonisten generoa aztertzea interesgarria da, are gehiago egileen generoa aztertzen bada aldi berean. Horrela, ikus daiteke egile gizonak eta egile emakumeak garrantzi berbera ematen ote dioten berdintasunari haien edukietako protagonisten generoa hautatzen dutenean. Orokorrean, kopuru totali begiratzen badiegu, protagonistak emakumeak direnean egileak gehienetan gizonezkoak dira, emakumeak eta generoa zehaztu gabe duten egileak parekoak dira gutxi gora behera: protagonistak gizonak direnean, gizonezko egileen kopurua askoz handiagoa da. Hala ere, egile gisa emakumeak bakarrik hartuta, oso garrantzi antzerakoa ematen diote emakumeen eta gizonezkoen kopuruari.

Orokorrean, protagonistei eta egileei dagokienez, zehaztu gabeko generoa gailentzen da. Hala ere, kopuru hain txikiak izanda egunkarika begiratzen dugunean zaila da ondorio esanguratsuak ateratzea. Dena den, aipatzekoa da emakumeen presentzia, egiletzan eta protagonista-izarean, urria dela egunkari guztietan; *Berria*n zertxobait gehiago lantzen da besteetan baino.

Taula 8: Eduki informatiboetako generoa egileen generoaren arabera

Protagonistak:	ED				Emakumea				Gizona				Guztira
	ED	Ema.	Giz.	Guztira ED	ED	Ema.	Giz.	Guztira ema.	ED	Ema.	Giz.	Guztira giz.	
Berria	%3,8	%2,7	%7,1	%13,6	%0,0	%2,2	%3,8	%6,0	%0,5	%1,1	%1,6	%3,3	%22,8
El Correo	%7,6	%3,3	%4,9	%15,5	%0,5	%0,5	%1,6	%2,7	%3,8	%0,0	%1,1	%4,9	%23,4
Diario de Navarra	%5,4	%0,5	%1,1	%7,1	%1,1	%0,5	%0,0	%1,6	%2,2	%0,5	%2,2	%4,9	%13,6
Gara	%17,9	%0,5	%4,9	%23,4	%1,6	%0,0	%3,3	%4,9	%4,3	%0,5	%7,1	%12,0	%40,2
Guztira	%34,8	%7,1	%17,9	%59,8	%3,3	%3,3	%8,7	%15,2	%10,9	%2,2	%12,0	%25,0	%100,0

ED=Generoa zehaztu gabe dagoenean. Iturria: Autorea

5.3 Errefuxiatuen trataeraren kronologia

Urtetik urtera ematen den aldaera ikusten da hurrengo taulan, egunkarika banatuta. Guztira, iritziari dagokionez dagoen datu esanguratsuena da, ez dagoela ia iritziarik. *Berria* eta *El Correok* ez dute iritziarik argitaratu, ezta urte batean ere. Areago, 2011 eta 2012an egunkari batek ez du argitaratzen iritziarik.

Informazioari dagokionez, datu orokorrek diote 2015. eta 2016. urteetan informazio gehiago argitaratu dela (%25 urte bakoitzean). 2011n *Garak* eta *El Correok* bakarrik argitaratu dute informazioaren bat errefuxiatuen inguruan (%1, gainera).

2016an, *Berriak* batez ere, igo du argitaratu duen informazio-kopurua, bere totaletik (%24), %10a baita urte horretakoa. Neurri txikiagoan *Diario de Navarrak* ere 2016an argitaratu du informazio gehien, %12tik %5. *Garak* 2015ean izan du informazio kopuru handiena (%12); eta *El Correok* 2013an izan du bere gorakada (%5), baina oso alde txikiarekin 2015arekin eta 2016arekin (%4 bakoitzean) alderatuta.

Taula 9: Errefuxiatuen trataera kronologikoki (2011-2016)

	Informazioa							Iritzia							Guztira
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira info	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira iritzia	
Berria	%0	%4	%3	%2	%5	%10	%24	%0	%0	%0	%0	%0	%0	%0	%24
El Correo	%1	%3	%3	%5	%4	%4	%20	%0	%0	%0	%0	%0	%0	%0	%20
Diario de Navarra	%0	%1	%2	%0	%4	%5	%12	%0	%0	%1	%1	%1	%2	%5	%17
Gara	%1	%5	%7	%6	%12	%6	%37	%0	%0	%0	%0	%1	%1	%2	%39
Guztira	%2	%13	%15	%13	%25	%25	%93	%0	%0	%1	%1	%2	%3	%7	%100

Iturria: Autorea.

Hurrengo tauletan, hurrenez hurren ikertutako informazioa tamainaren arabera sailkatuta agertzen da: txikia, ertaina eta handia. Honela, urteen poderioz tamainaren arabera bilakaera eman ote den ikusten dugu hurrenean.

Item handiei begira, 2016a izan da item handi gehien argitaratu den urtea, datu esanguratsua ere tamaina ertainen kopuruaren inguruan, 2016 izan baita horietako gehien argitaratu duen urtea ere. Hala ere, egunkariaren artean, badago aldea.

Berriak gorakada handia du eduki handien inguruan, 2016an argitaratu ziren item handi guztien (%29'3) %21'6 berak argitaratutakoak baitira. Beste urteetan, kopuruak gutxi gorabehera mantendu egin dira eta albiste laburren presentzia eman da bere itemen artean.

El Correo gutxi gora behera hiru tamainen artean parekotasuna du eta item ertain eta txikiak ditu nagusiago handiak baino. Argitaratu dituen itemen tamaina totalari begira, %27'3 txikiak dira; ertainak, %19'5 eta handiak %16'2. Urtetik urterako bilakaeran ez dago datu oso esanguratsurik. 2015an albiste txiki gehiago ditu gainontzeko urteetan baino, 2014an ertain gehiago gainontzeko urteetan baino eta handiei dagokionez, 2016an du gorakada txikia.

Diario de Navarra duen datu esanguratsuen da eduki ertainei dagokionez 2016an gorakada handia duela, bere item ertain guztien erdia (%29'3tik %14'6). Item txiki gutxi ditu, denak 2014an, eta handiei dagokionez, 2015an du kopuru handiena (%5'4), baina alde txikiarekin.

Garak, azkenik, item txikiaren gorakada handia du 2015ean, bere item txikiaren erdia da urte horretakoa (%36'4tik %18'2). Ertainei dagokionez, gorakada azken bi urteetan eman da, %12'2 urte bakoitzean. Eta azkenik, item handiei begira, nahiko egonkorra izan da urtetik urtera. 2013a eta 2015a izanik gorakada nagusiak izan dituzten urteak: %10'8 urte bakoitzean.

Taula 10: Item txikiak argitaratutako urtearen arabera

Txikiak	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Berria	%0,0	%0,0	%4,5	%9,1	%9,1	%9,1	%31,8
El Correo	%0,0	%4,5	%4,5	%4,5	%9,1	%4,5	%27,3
Diario de Navarra	%0,0	%0,0	%0,0	%4,5	%0,0	%0,0	%4,5
Gara	%4,5	%4,5	%4,5	%4,5	%18,2	%0,0	%36,4
Guztira	%4,5	%9,1	%13,6	%22,7	%36,4	%13,6	%100,0

Iturria: Autorea

Taula 11: Item ertainak argitaratutako urtearen arabera

Ertaina	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Berria	%0,0	%7,3	%2,4	%0,0	%2,4	%0,0	%12,2
El Correo	%0,0	%2,4	%4,9	%7,3	%2,4	%2,4	%19,5
Diario de Navarra	%0,0	%0,0	%7,3	%0,0	%7,3	%14,6	%29,3
Gara	%0,0	%2,4	%4,9	%7,3	%12,2	%12,2	%39,0
Guztira	%0,0	%12,2	%19,5	%14,6	%24,4	%29,3	%100,0

Iturria: Autorea

Taula 12: Item handiak argitaratutako urtearen arabera

Handia	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Berria	0,0%	2,7%	2,7%	0,0%	5,4%	21,6%	32,4%
El Correo	2,7%	2,7%	0,0%	2,7%	2,7%	5,4%	16,2%
Diario de Navarra	0,0%	2,7%	0,0%	0,0%	5,4%	2,7%	10,8%
Gara	0,0%	8,1%	10,8%	5,4%	10,8%	5,4%	40,5%
Guztira	2,7%	16,2%	13,5%	8,1%	24,3%	35,1%	100,0%

Iturria: Autorea

Errefuxiatu umeei dagokienez, bilakaera kronologikoa aztertu da, jakiteko Aylan Kurdiren heriotzak nolabaiteko garrantzia izan duen errefuxiatuen tratamenduan eta adin txikikoei emandako garrantziari dagokionez.

2011, 2012 eta 2014. urteetan ez da umeen inguruko inolako edukirik argitaratu, bai ordea, 2013., 2015. eta 2016. urteetan. Ume errefuxiatuen inguruan argitaratu diren edukien bi heren *Garak* argitaratu ditu, eta beste heren hori *Berriak* (Ikus taula 13).

Taula 13: Ume errefuxiatuen presentzia urtearen arabera

Ume Errefuxiatuak	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira
Berria	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%33,3	%33,3
El Correo	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0
Diario de Navarra	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0
Gara	%0,0	%0,0	%33,3	%0,0	%33,3	%0,0	%66,7
Guztira	%0,0	%0,0	%33,3	%0,0	%33,3	%33,3	%100,0

Iturria: Autorea

5.4 Errefuxiatuen jatorria

Askotan Ekialde Hurbileko errefuxiatuen inguruan hitz egiten dugunean badirudi Siriako gatazkaz gogoratzen garela. Horregatik, landu diren edukietako errefuxiatuen jatorria aztertzea ezinbestekoa da, batez ere ikusteko egunkariak Siriaz gain bere inguruko herrialdeetaz ahaztu diren edo ez ikusteko.

Errefuxiatuen erdia baino gehiago Siriakoa da, konkretuki %59'8. Egunkarika begiratzen badugu, *El Correek* eta *Diario de Navarrak*, batez ere, Siriako errefuxiatuei ematen diete protagonismo gehien. *Diario de Navarrak* portzentaje txiki batean landu ditu Afganistangoak (%1'1) eta *El Correek* portzentaje txiki-txiki batean Afganistan (2'2), Irak (2'2) eta Irangoak (1'1); bera da Siriako errefuxiatuak gehien landu dituen gainera (%25).

Israel eta Palestinako gatazka presente egon da *Berrian* eta *Garan* (%5'4 bakoitzean), nahiz eta azken urteetan gure hedabideetatik protagonismoa galtzen joan den gaia izan. *Garak* Kurdistango zonaldeari eman dio garrantzi handia (%13), Kurdistan bera herrialde gisa hartuta bere edukietan, lau egunkarrietatik bakarra. Beste alde batetik, baita ere Afganistango errefuxiatuak presente izan ditu, lau egunkarien artean gehien landu dituen izanik (%5'4).

Beraz, laburbilduz, Siria izan da orokorrean errefuxiatu gehien jatorriko herrialdea. *Berria*, *El Correo* eta *Diario de Navarra* egunkariek landu duten herrialde nagusia, konkretuki: *Berriak* bere edukiaren erdian baina gehiagotan, %10'9, %17'4tik; *El Correek* %25, %30'4tik; *Diario de Navarrak* %7'6, %8'7tik. *Gara*, aldiz, landutako informazioan herrialde aniztasun handiena erakutsi duena izan da.

Taula 14: Errefuxiatuen jatorria

Jatorria	Afganistan	Iran	Iraq	Israel + Palestina	Jordania	Kurdistan	Siria	Guztira
Berria	%0,0	%0,0	%1,1	%5,4	%0,0	%0,0	%10,9	%17,4
El Correo	%2,2	%1,1	%2,2	%0,0	%0,0	%0,0	%25,0	%30,4
Diario de Navarra	%1,1	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%0,0	%7,6	%8,7
Gara	%5,4	%1,1	%0,0	%5,4	%2,2	%13,0	%16,3	%43,5
Guztira	%8,7	%2,2	%3,3	%10,9	%2,2	%13,0	%59,8	%100,0

Iturria: Autorea

5.5 Enkoadreak (*frames*)

Behin protagonisten eta egileen profila ezagututa, edukiaren ezaugarriak aztertu dira. Konkretuki ikerketa honetan landu diren enkoadreak, aurretik aipatutako moduan, hauexek izan dira: errukia, elkartasuna, giza eskubideak, politika eta legedia, gatazka edo gerra eta arrazakeria. Hurrengo tauletan agertuko den moduan, lau egunkari hauek tratatu duten edo ez azalduko da soilik.

5.5.1 Errukia

Hurrengo taula honetan sintesi-lerro guztietan zenbat tratatzen den errukia aztertu da, ehunekotan. Proporzioan errukia gehien lantzen duen egunkaria *Gara* da (%25), **Berriak** eta *El Correo* sintesi-lerro gehiago dituzte errukia lantzen dituztenak, lantzen ez dituztenak baino, eta *Diario de Navarra* da emaitza negatiboa ateratzen duen egunkari bakarra; hau da, errukia lantzen ez duen eduki gehiago duena, errukia islatzen dituenak baino.

Gaiak ematen duen sentiberatasunarengatik errukiaren trataera aztertzea esanguratsua da eta emaitzen arabera orokorrean gehiago dira errukia islatu dutenak (%56'3), islatu ez dutenak baino (%39'6), baina aldea ez da handiegia.

Iritzian ez dago datu esanguratsurik; *Diario de Navarra* bere edukien artean kopuru berdinak ematen du errukiaren trataera, ematen ez duenarekin parekatuta (biek %1'6). *Garak* dituen gutxi horietan lantzen du errukia (%1tik %1).

Taula 15: Errukia informazio eta iritzian

Errukia:	Informazioan			Iritzia			Guztira
	Bai	Ez	Guztira info.	Bai	Ez	Guztira iri.	
Berria	%13,5	%8,3	%21,9	%0,0	%0,0	%0,0	%21,9
El Correo	%12,0	%10,4	%22,4	%0,0	%0,0	%0,0	%22,4
Diario de Navarra	%5,7	%7,3	%13,0	%1,6	%1,6	%3,1	%16,1
Gara	%25,0	%13,5	%38,5	%1,0	%0,0	%1,0	%39,6
Guztira	%56,3	%39,6	%95,8	%2,6	%1,6	%4,2	%100,0

Iturria: Autorea

Hala ere, edukia errefuxiatuen inguruan denean zehaztea beharrezkoa da errukia lantzen den aztertzeko. Beraz, hurrengo taula hori zehaztuta egin da, eta halaxe, emaitzak pixka bat aldatu dira.

Oraingoan, lau egunkariek errukia gehiago lantzen duten edukiak dituzte, lantzen ez dituztenak baino. *El Correo* eta *Diario de Navarra* egunkarietan errukiaren erabilera zertxobait aldatu da gorantz. *Diario de Navarra* kopuru berdina du baiezkoan eta ezezkoan: %5'4; *El Correo* %14'8an eman da errukia, eta %9'4ean ez.

Berriarena bere horretan mantendu da gutxi gora behera, eta *Gararen* emaitzak antzekoak dira, baina baita ere igo egin da errukiaren erabileraren ehunekoa (%25tik %28'9ra).

Taula 16: Errukia protagonistak errefuxiatuak direnean

Errefuxiatuak:	Info			Iritzia			Guztira
	Bai	Ez	Guztira info	Bai	ez	Guztira iri.	
Berria	%13,4	%6,0	%19,5	%0,0	%0,0	%0,0	%19,5
El Correo	%14,8	%9,4	%24,2	%0,0	%0,0	%0,0	%24,2
Diario de Navarra	%5,4	%5,4	%10,7	%2,0	%2,0	%4,0	%14,8
Gara	%28,9	%11,4	%40,3	%1,3	%0,0	%1,3	%41,6
Guztira	%62,4	%32,2	%94,6	%3,4	%2,0	%5,4	%100,0

Iturria: Autorea

5.5.2 Elkartasuna

Elkartasunaren trataerarekin, errukiarenarekin ematen den fenomenoaren antzerakoa ikus dezakegu, baina zenbaki totalei erreparatzen badiegu, tratamendu txikiagoa ematen zaio elkartasunari. *Berria* eta *Gara* dira gehien landu dutenak elkartasuna, bere total propioaren erdia baino gehiagotan behintzat: %13'5, %21'9tik eta %25'5, %38'5 hurrenez hurren.

El Correok eta *Diario de Navarrak*, aldiz, neurri txikiagoan lantzen dute elkartasuna. *El Correoren* edukien erdian bakarrik lantzen da elkartasuna: %22'4tik %7'8an. *Diario de Navarran*, %13tik %5'2an besterik ez da islatzen elkartasuna (Ikus taula 17).

Taula 17: Elkartasuna informazio eta iritzian

	Informazioa			Iritzia			Guztira
	Bai	Ez	Guztira info.	Bai	Ez	Guztira iri.	
Berria	%13,5	%8,3	%21,9	%0,0	%0,0	%0,0	%21,9
El Correo	%7,8	%14,6	%22,4	%0,0	%0,0	%0,0	%22,4
Diario de Navarra	%5,2	%7,8	%13,0	%1,0	%2,1	%3,1	%16,1
Gara	%25,5	%13,0	%38,5	%1,0	%0,0	%1,0	%39,6
Guztira	%52,1	%43,8	%95,8	%2,1	%2,1	%4,2	%100,0

Iturria: Autorea

“Elkartasuna” enkoadreak adierazten du hedabideak errefuxiatuenganako elkartasuna erakusten duela, horregatik hauek protagonista gisa hartu eta honela ikertzea beharrezkoa ikusi da.

Dena den, 18. taulari begiratzen badiogu ikusiko dugu ez dela ia aldaketa nabaririk antzematen. *El Correok* elkartasunari ematen dion trataera pixka bat igotzen da eduki informatiboetan: Lehen %7'8 eta orain %9'4.

Taula 18: Elkartasuna informazio eta iritzian protagonistak errefuxiatuak izanda

Errefuxiatuak:	Info.			Iritzia			Guztira
	Bai	Ez	Guztira info.	Bai	Ez	Guztira iri.	
Berria	%11,4	%8,1	%19,5	%0,0	%0,0	%0,0	%19,5
El Correo	%9,4	%14,8	%24,2	%0,0	%0,0	%0,0	%24,2
Diario de Navarra	%4,0	%6,7	%10,7	%1,3	%2,7	%4,0	%14,8
Gara	%26,2	%14,1	%40,3	%1,3	%0,0	%1,3	%41,6
Guztira	%51,0	%43,6	%94,6	%2,7	%2,7	%5,4	%100,0

Iturria: Autorea

5.5.3 Giza eskubideak

Giza eskubideen trataerari dagokionez, erruki eta elkartasunaren presentzia baino baxuagoa da. Aldea oraindik txikiagoa da bien artean, eta giza eskubideak lantzen ez duten edukiak gailentzen dira oraingoan totalari dagokionez: %46'4an bai eta %49an ez.

Berriak eduki kopuru berdina du giza eskubideek jorratzen dutenen eta ez dutenen artean: %10'9. *El Correo* eta *Diario de Navarra* egunkariek, emaitza negatiboa ematen dute: *El Correo*ren kasuan %22'4tik 9'4an bakarrik lantzen ditu giza eskubideak; *Diario de Navarra*ren %13tik %2'6an besterik ez. *Gara* da bakarra giza eskubidearen trataeraren eduki gehiago dituen.

Iritziaren aldetik ez dago datu esanguratsurik, totalari begira presentziaren eta faltaren kopurua berdin-berdina da: %2'1. Baina gutxi horiek egunkarika aztertzen baditugu, *Garako* %1 txiki horrek lantzen dituela ikusten da, eta *Diario de Navarra*ren idatzi diren horietan %3'1tik %1ean bakarrik.

Taula 19: Giza eskubideak

	Info.			Iritzia			Guztira
	Bai	Ez	Guztira info.	Bai	Ez	Guztira iri.	
Berria	%10,9	%10,9	%21,9	%0,0	%0,0	%0,0	%21,9
El Correo	%9,4	%13,0	%22,4	%0,0	%0,0	%0,0	%22,4
Diario de Navarra	%2,6	%10,4	%13,0	%1,0	%2,1	%3,1	%16,1
Gara	%23,4	%15,1	%38,5	%1,0	%0,0	%1,0	%39,6
Guztira	%46,4	%49,0	%95,8	%2,1	%2,1	%4,2	%100,0

Iturria: Autorea

5.5.4 Politika eta legedia

Gai honek duen garrantzi politiko eta demografikoagatik, eta jakinda ere Europak duen erantzukizuna zein nolako handia den, ezagutu beharra dago politika eta legediari ematen zaion garrantzia. Hurrengo taulan erakusten den moduan, informazio totalaren erdiak baino gehiagok lantzen du politika eta legediaren gaia: %95'8tik %51ean.

Egunkarien arabera aztertuta, *El Correeok* eta *Garak* ematen dute emaitza positiboa eta *Berria* eta *Diario de Navarra* aldiz, negatiboa. *Berria* oso alde txikiarekin: %21'9tik %10'4an lantzen baitu; *Diario de Navarra*, ordea, %13tik %4'7an bakarrik.

Iritziari begira, bai *Diario de Navarra* eta baita *Garak* ere, politika eta legedia izendatu duten eduki gehiago dituzte, %4'2tik %3'1an konkretuki. **Garan** %1etik %1ean eta *Diario de Navarra* %3'1tik %2'1ean.

Taula 20: Politika eta legedia informazio eta iritzian

	Info.			Iri.			
	Bai	ez	Guztira info.	bai	ez	Guztira iri	
Berria	%10,4	%11,5	%21,9	%0,0	%0,0	%0,0	%21,9
El Correo	%12,0	%10,4	%22,4	%0,0	%0,0	%0,0	%22,4
Diario de Navarra	%4,7	%8,3	%13,0	%2,1	%1,0	%3,1	%16,1
Gara	%24,0	%14,6	%38,5	%1,0	%0,0	%1,0	%39,6
Guztira	%51,0	%44,3	%95,8	%3,1	%1,0	%4,2	%10,0

Iturria: Autorea

5.5.5 Gatazka edo gerra

Errefuxiatuak errefuxiatu izatearen arrazoiak ugariak diren arren, gehienak gerra eta gatazka direla eta bihurtzen dira errefuxiatu. Horrexegatik, egunkariak gerra eta gatazkei ematen dieten garrantzia ere ikertu nahi izan da, eta horretara zuzendutako enkoadre bat sortu da.

21. taulan ikus daitekeen moduan, ez zaio garrantzi gehiegirik ematen. Informazioan, totalaren %28'3an besterik ez da lantzen. Egunkarien artean ez dago alde handirik, berriro ere *Gara* baita gehien aipatzen duena baina proportzionalki aldea beste egunkarien antzerakoa da.

Iritziari begira, edukien erdian baino zertxobait gehiagotan lantzen da gai hau. Oso eduki gutxi dira; beraz, ez da datu esanguratsua. *Diario de Navarra* kantitate berdina du lantzen dutenen eta ez dutenen artean: %1'6. *Garan*, %1etik %1 horretan.

Taula 21: Gerra eta gatazka informazio eta iritzian

	Informazioa			Iritzia			Guztira
	Bai	ez	Guztira info.	Bai	ez	Guztira iri.	
Berria	%6,3	%15,7	%22,0	%0,0	%0,0	%0,0	%22,0
El Correo	%7,9	%14,7	%22,5	%0,0	%0,0	%0,0	%22,5
Diario de Navarra	%2,6	%10,5	%13,1	%1,6	%1,6	%3,1	%16,2
Gara	%11,5	%26,7	%38,2	%1,0	%0,0	%1,0	%39,3
Guztira	%28,3	%67,5	%95,8	%2,6	%1,6	%4,2	%100,0

Iturria: Autorea

5.5.6 Arrazakeria

Jakinda Europako herrialde askotan ultra eskuinak duen presentzia handia, errefuxiatuek nahiz migratzaileek sufritzen dituzten arrazakeria jarrerak etab., egunkariak honi ere ematen dioten garrantzia ikusi nahi izan da ikerketa honetan enkoadreak aztertu direnean.

Informazio guztiaren (%95'8) %13'7an bakarrik aipatu da arrazakeria. Oso gutxitan landu da arrazakeria lau egunkarietan. *Gara* den arren arrazakeria gehien landu duen egunkaria, proportzioan begiratzen badugu ez dago alde handirik ezta egunkari batean ere. Iritzian, ez da eduki batean ere lantzen.

Taula 22: Arrazakeria informazio eta iritzian

	Informazioa				Iritzia			Guztira
	Bai	Ez	Guztira info.		Bai	Ez	Guztira iri.	
Berria	%3,7	%18,4	%22,1	%0,0	%0,0	%0,0	%22,1	
El Correo	%1,1	%21,6	%22,6	%0,0	%0,0	%0,0	%22,6	
Diario de Navarra	%0,5	%12,6	%13,2	%0,0	%3,2	%3,2	%16,3	
Gara	%8,4	%29,5	%37,9	%0,0	%1,1	%1,1	%38,9	
Guztira	%13,7	%82,1	%95,8	%0,0	%4,2	%4,2	%100,0	

Iturria: Autorea

6 ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

6.1 Errefuxiatuak eta informazio-generoak

Hipotesien atalean planteatzen den lehen ideia egunkariek Errefuxiatuei buruzko informazioa albisteen bitartez ematen dutela da, eta halaxe frogatu dute emaitzek (ikus taula 1). Lehenengo taulan ikus dezakegun moduan, albistea da gehien landu den kazeta-generoa.

Hasiera batean espero zen moduan, errefuxiatuen gaian albistek dira nagusi, baina baita kronikak ere, nazioarteko kazetaritzan eta berriemaileen artean asko erabiltzen den kazeta-generoa baita hau, kazetariak gertutik bizi dutelako gatazka. Irakurleei gatazkak eta gai sozialak kronika bidez aurkeztea erabaki egokia da. Erreportajea ere asko lantzen da, arrazoi beragatik eta askotan iturrien aniztasunak eskaintzen duen aukeragatik.

Informazioaren protagonisten artean %73'4 dira errefuxiatuak. Hala ere, garrantzitsua da egunkariak independenteki aztertzea, oso desberdina baita batzuen eta besteen arteko errealitatea, 2. taulan ikus dezakegun moduan, *Gara* da errefuxiatuak protagonista gisa gehien hartzen duen egunkaria, bai kuantitatiboki eta baita ere proportzian beste egunkariek alderatuta. Dena den, lau egunkarietan dira errefuxiatuak protagonista nagusiak.

Azken finean ez dugu ahaztu behar gai honen protagonista nagusiak errefuxiatuak direla, baina azterketa honetan frogatu ahal izan den moduan, askotan politikariak izaten dira albisteetako ahots nagusiak, gai honen inguruan

duten erantzukizunagatik. Dena den, garrantzizkoa iruditzen zait errefuxiatuei ahotsa ematea eta haiek izatea benetako protagonistak, beraz, orokorrean lau egunkarien jokabidea zentzu honetan egokia izan da, zenbait alderdi hobetzeko dituzten arren.

Egunkariek hemen lan eta erronka handia dute etorkizunari begira, askotan ikusi ahal izan den moduan, errefuxiatuak informazio edukien protagonistak diren arren, ez zaie ahotsa ematen. Informazio-iturriei begiratzen badiegu, gehienetan errefuxiatuak hirugarren pertsonan agertzen dira istorioan, askotan zenbaki hutsetan. Ez zaie ikusgarritasuna ematen, ez dute ahotsik gehienetan eta errukia transmititzen duten urrutiko gorpuzki batzuk bezala aurkezten dira.

Horretaz, gehien lantzen diren kazetaritza-generoak informazio-generoen barruan aurkitzen ditugu: albisteak, erreportajeak eta kronikak, hain zuzen. Albisteak dira gehien aurkitu direnak, baina hala ere kroniketaatik oso gertu, 1. taulan ikusi dezakegun moduan. Albisteak alde batera utzita, egunkariek nahiko parekatuta izan dituzte kronika eta erreportaje-kopuruak. Esan beharra dago iritzi-genero gehiago aurkitzea espero zela ikerketa honen hasieran.

Gaiak nazioartean duen garrantziagatik, azken finean Europak izandako jarreragatik eta beste arrazoi ugari direla eta, iritzi-artikulu eta editorialen presentzia faltan bota da egunkari guztien partetik. Adibidez, Europako herrialde gehienek Europar Batasunean sinatutako kuotak betetzen ez zirela albistegietan agertzen hasi zenean, ez zen eman iritzi-generoen gorakada, ezta Aylan Kurdiren heriotzaren ondoren ere .

Hipotesien artean planteatzen den beste ideia bat genero ikuspegitik egin da eta hauxe ere bete da: emakumeen presentzia txikiagoa da gizonezkoena baino, bai egile-generoari dagokionez eta baita protagonistei dagokienez ere.

6.2 Genero-berdintasuna

Protagonisten generoari dagokionez, orokorrean ez dago alde handirik, normalean honelako informazioa giza talde handiei dagokienez gehienbat talde bezala begiratzen zaielako, baita adinari begira ere. Beraz, generoa zehaztu gabe duen taldea gailendu da, hau da, errefuxiatuak talde anitz gisa. Baina

kopuruari begiratzen badiogu, handiagoa da gizonezkoen presentzia emakumeena baino, 5. eta 6. tauletan ikusi dezakegun bezala.

Emakume protagonistei begira, kazetaria emakumea denean ikusi dugu hauen kantitatea gizonezkoenaren gainetik jartzen dela, baina ez kantitate deigarrietan, ez ondorio handiak ateratzeko moduan (Ikus taula 8). Eta zer gertatzen da orokorrean emakumeak protagonistak direnean baina gizonezkoek ere tratatzen dituztenean eduki horiek?

Hau da, orokorrean, totalean, aztertutako item guztietako sintesi-lerroak hartzen baditugu eta protagonisten generoei begiratu, gauza aldatu egiten da: 8. taulan ikusten den moduan, egunkariak banan-banan aztertzen baditugu, *Berria* da bakarra non emakume gehiago agertzen diren gizonezkoak baino (alde txikiarekin, dena den: %6 emakumeak eta %3'3 gizonezkoak).

Beste hiru egunkariak gizonezkoen presentzia handiagoa dute. Tradizionalki *Berriak* genero-berdintasunaren aldeko apustua egin duela esan daiteke eta hemen hori frogatu dela esan dezakegu. *Garak* ere honen alde egitea espero zen, baina ez da horrela izan eta gainera alde nahiko handiarekin dago generoen arteko desberdintasuna. Egunkari guztiek dute, gaur egun oraindik, erronka handia

Emakume kazetarien kasuan, aipatzekoa da kazetaritzaren munduan (lan-munduko beste alderdi askotan bezala), gizonezkoen kopurua altuagoa dela. Hala gertatu da ere aztertutako laginean, emakume kazetarien kantitatea askoz baxuagoa dela gizonezkoena baino. Generoa identifikatuta daukaten item guztietatik (50) emakumeak 16 dira eta gizonezkoak 34. Ehunekotan, argiago ikusteko, emakumeak %32 besterik ez dira, eta gizonezkoak %68. Beraz, dagoeneko argi dago generoaren inguruko hipotesia betetzen dela ikerketa honekin.

Madrilgo Prentsa Elkarteak urtero ateratzen duen txostenetako azken datuek diotenaren arabera, langabezian dauden profesionalen %64 emakumeak dira eta gainera, soldata baxuagoarekin lan egiten dute. Gizonezkoen %83'3k egiten dute lan kontratu mugagabearekin, eta emakumeen kasuan %70ek egiten du lan baldintza hauetan (APM, 2017). Ikerketa honetan langile kopuruaren alderdia behintzat betetzen dela frogatu

da, emakume kazetariak ez direlako asko, ez behintzat nazioarte-alderdian lan egiten dutenak lau egunkari hauetan.

Zenbait estereotipo eta klitxeek diote errefuxiatuaren prototipoa genero eta adinari dagokionez, gizonezkoa eta gaztea dela. ACNURren arabera, errefuxiatuen %75 baino gehiago emakume helduak eta umeak dira, eta erakunde honek dionenez, Europara iristen direnen erdia baino gehiago dira emakumeak eta umeak. Beraz, mito horrekin apurtzen laguntzen oteduten jakiteko egin da iker-galdera hau.

6.3 Errefuxiatuak urtetik urtera

Aylan Kurdi ume kurduaren heriotza gertatu zenetik (2015eko Iraila) areagotu egin dira gai honen inguruko edukiak aztertutako lau komunikabideetan. 2015a eta 2016a dira errefuxiatuen inguruko eduki gehien argitaratu diren urteak.

Kopuruari dagokionez, 2015era arte nahiko orekatua izan da lehenengo urtean izan ezik, bi item besterik ez baitira aurkitu 4 egunkarien artean (ikus taula 9). Gorakadak 2012-2013. urtealdian eta 2015ean izan ziren. Horrek Ekialde Hurbileko errefuxiatuen areagotzearekin eta mundu-mailako errefuxiatuen krisiaren gorakadarekin egiten du bat, batez ere 2015. urteari dagokionez.

2014. urtea orekatuagoa izan zen besteekin konparatuta, krisia hor zegoen baina ez ziren beste urteetan bezain beste zorigaitz gertatu, ezta Europaren partetik erabaki nagusi asko hartu, eta halaxe islatu da hedabideetan. 2015. urtean berriro ere errefuxiatu-uholdea suertatu zen, eta horrekin batera albiste gehiago sortu. Urte horretan bertan hil zen Aylan Kurdi eta bera bezala, beste milaka pertsona Mediterraneoan zeharkatzen, 3700 baino gehiago (del Castillo, 2015-2016).

Bai komunikabideei begira, eta baita ere gizarteari begira, kontzientziak pizten hasi ziren urte horretan baina batez ere 2015ean gertatutako zenbait gertakariekin. 2016 urtea izan da aztertutako urteen artean item gehiago argitaratu dituen, beraz hasieran planteatu den ideia betetzen da: hirugarren hipotesia hain zuzen.

Esan daiteke nahiz eta neurri txiki batean izan, Aylan Kurdiren heriotzak eta garai hartan gertatu ziren hondamendi zenbaitek, hedabideen erabaki hau eragin zutela: gehiago argitaratzea. Europako eta munduko beste zenbait lekutako biztanleek GKEei eskainitako diru-laguntzak handitzea eragin zuen bezala. Egia da orokorrean, egin diren ikerketen arabera, egunkariak eta baita ere beste motatako hedabideek kantitateari dagokionez informazio kopurua areagotu zutela honen ondoren, baina hemen beste eztabaida bat sortzen da: zein kalitatekoa?

Frogatu izan da garai horretan zabaltzen zen informazioa sentsazionalismoz lantzen hasi zirela hedabide gehienek, baina eragin positiboa ere izan zuen aldaketa honek. Aylan Kurdiren heriotza eta gero, hedabideen atentzia Ekialde Hurbiletik zetozenen gainean ezarri zen, eta haienezako “errefuxiatu” termino erabiltzen hasi ziren modu finkoan. Egoera hain paradigmaticoa izan zen politikariek eta hedabideek beste herrialde batzuen egoera ahaztu zutela, baina aldiz, beste herrialde batzuetatik zetozenei (adibidez, Hego Sudanetik) lehenbiziko aldiz errefuxiatu izena ezarri zitzaien (Red Acoge, 2015).

Beste alde batetik, ikerketa honetan konkretuki aztertu diren lau egunkarietan, oso gutxi dira umeen inguruan hitz egin duten aurkitutako item kopurua, guztira hiru besterik ez. Emakumeekin gertatzen den gauza bera dugu hemen. Gure kulturaren oso zabalik dagoen klitxe edo topikoa da bertara datozenak gizonezko indartsu eta gazteak direla, eta datuek argi eta garbi zehazten dute ez dela hala, aurretik azaldu dudan moduan. Beraz, ez da lortzen honekin apurtzea, behintzat hedabideei dagokien erantzukizunari begira (Ikus taula 13).

Jakinda umeena errefuxiatuen talde ahulenetarikoa dela, beharrezkoa da egunkariak trataera handiagoa eskaintzea, emakumeekin gertatzen den moduan. Egunkariak etorkizunari begira egiteko handia dute honekin, eta ez bakarrik nolabaiteko hondamendia gertatzen denean (hedabide askok dagoeneko ikusi dugun moduan Aylan Kurdirekin egin zuten bezala).

6.4 Enkoadreak

Ikerketa honen parterik zailena izan da hau. Enkoadreak aztertzea ez da lan makala izan, askotan hitz konkretuak agertzen ez direnean, hizkera inplizituan erreparatu behar delako, eta hori, askotan, subjektiboa delako. Azken hipotesian planteatzen den ideia sinplea da: egunkari bakoitzak duen ildo editorialari jarraiki, aztertutako lau egunkarien informazioa erabat ezberdina dela.

Frame edo enkoadreen azterketa egiteko, sintesi-lerro totala aukeratu da, ez baita nahikoa itemak aztertzearekin (bakoitzaren barruan gai bat baino gehiago lantzen delako noizean behin).

Aztertu den lehen enkoadrea errukia izan da. 15. taulan ikusten den moduan, ikergaldera betetzen da, *Garak* eta *Berriak* bere ildo editorialari jarraiki, *El Correok* eta *Diario de Navarrak* baino gehiago landu baitute errukia. Hala ere, egunkarien artean alde handiagoa espero zen hasiera batean, baita ere *El Correok* eta *Diario de Navarrak* errukia oso-oso gutxi lantzea. *El Correok*, batez ere, ez du espero zen bezain gutxi landu errukia.

Horrez gain, hedabideek kode deontologikoek diotena errespetatzea eta sentsazionalismoan ez erortzea ezinbestekoa da. Informazioa erruki-ikuspuntutik lantzen denean hori zaila izan ohi da, beraz etorkizunari begira, errefuxiatuen inguruan hitz egiten denean garrantzitsua da egunkariek hau ere kontuan izatea. Beraz, onargarriak dira “bakartuta daude” bezalako adierak (*Berria*), ez ordea, “*Globos de colores en las paredes para suavizar la desesperación*” bezalakoak (*Diario de Navarra*), askotan sentsazionalismo kutsua hartzen dutenak.

Elkartasunari begira, galdera betetzen da, *Berria* eta *Gara* baitira elkartasuna gehien transmititzen duten egunkariak: hurrenez hurren, beren edukien %19’5etik %11’4an eta %40’3tik %26’2an. *El Correok* eta *Diario de Navarrak* emaitza negatiboak eman dituzte, baina egia da *Berria* eta *Garak* nahiz eta emaitza positiboak atera dituzten ere, ez direla ospatzekoak. Espero zena bete da bakoitza bere ildo editorialarekin bat egiten duelako, baina *Garak* jokabide zuzenena duen arren, hobetzeko asko dute lau egunkariek.

Diferentzia handiarekin, 15. taulan ikusi dezakegun moduan, Gara da giza-eskubideak gehien lantzen dituen egunkaria. Ildo ideologikoari eutsi diot hipotesi hau lantzeko, momentu oro. Galdera honekin ildo ideologiko ezkertiarrenak dituzten hedabideak (*Berria*, *Gara*) modu positiboan hartu dira, pentsatuz giza-eskubideei beste bietan (*El Correo*, *Diario de Navarra*) baino garrantzi handiagoa emango zitzaizela sortu dituzten artikuluetan.

Giza eskubideak gehien jorratu dituen egunkaria *Gara* izan da, eta *Berriak* ez du espero zen bezain beste landu alderdi hau (bere edukien erdian, konkretuki). Beste alde batetik, *El Correo* eta *Diario de Navarra* gutxi gora behera haiekin espero zena bete dute, are gehiago *Diario de Navarra*. Errukia eta elkartasuna bezalako alderdiak sentsazionalismoarekin eta kazetariaren subjektibitatearekin nahastu daitezke, baina giza eskubideak gutxienez datu gisa edo adituen adierazpen gisa aurkeztu daitezke, eta askotan hori ere ez dute egin egunkariek.

Gainera, askotan hedabideak gurea aurkezten dute elkartasuna eta eskuzabaltasuna ezaugarri gisa duen gizartea bezala. Baina ahaztu egiten zaie giza eskubideen aurka egiten diren sarraskiak, ez bakarrik haien jatorriko herrialdeetako gobernarien partetik, baizik eta Europaren partetik ere gertatzen direnak. Gainera, errefuxiatuek bizi dituzten bizi-baldintzetan, askotan, oinarrizko giza eskubideak apurtu dira, eta horren kontaketa falta sumatu da ikerketa honetan.

Politikaren eta legediaren trataera handiena *Garak* egin du, nahikoa landu dute *El Correo* eta *Berriak* ere, baina gutxiago *Diario de Navarra*. Hasiera batean hemen espero zena zen hedabideek europar ikuspuntua lantzea eta horren arabera informatzea. Europako agintarien erabakiei garrantzi handia ematen zentratzen dira askotan, teletipoetan jasotzen dituzten informazioan eta politikarik egiten dituzten adierazpenetan oinarrituta beste zenbaitetan.

Halaxe eman da politika eta legediaren trataera egin denean, politikariek herrialde bakoitzak jaso behar dituen errefuxiatu kopuruen inguruko erabakiekin, adibidez. Ez dituzte hainbeste lantzen errefuxiatuek jasan behar dituzten neurri gogorrak, edo beraien aurka arauak apurtzen direnean, gutxitan hitz egiten da, beraz, gai honi begira errefuxiatuek jasaten dituzten baldintzen

inguruan. Hala nola: "Bakoitzak hemezortzi dolar ordaindu behar izan zituen Siria uzteko, eta beste 30 dolar Libanon sartzeko» (*Berria*, 2012).

Ez da asko hitz egin orokorrean gerra eta gatazkaren inguruan errefuxiatuen trataera ematen denean. Kontuan izanda errefuxiatuak zergatik diren errefuxiatu, eta are gehiago Ekialde Hurbilekoak, bertan dauden gatazka armatu eta larriengatik, hasiera batean honen inguruko trataera handiagoa espero zen lau egunkarien partetik. Zenbakia negatiboa da eta oso deigarria egiten da datu hau, lehenbiziko enkoadrea baita lau egunkarietan fenomeno bera ematen dena.

Bi fenomeno desberdin bezala aurkezten da egunkarietan, askotan agertzen dira Siriako gerrari buruzko artikuluak, adibidez. Baina egindako ikerketan frogatu ahal izan denez, gutxitan eman da trataera hori errefuxiatuen trataerarekin batera. Gerra eta gatazka desberdinen inguruko adierazpen gutxi batzuetan laburtu ahal izan da tratamendu hori. Adibidez: "*La guerra siria no perdona a nadie*" (*Diario de Navarra*, 2015), edo "*El estruendo de los misiles le hizo mudarse a Alepo...*" (*El Correo*, 2016).

Gogorarazten digute errefuxiatuek gerrate edo norgehiagoka ugariengatik egiten dutela ihes beren etxeetatik, baina gehiegi zehaztu gabe. Askotan, eskertzen da gerra horiek inguruko informazio gehiago eskaintzea irakurleari, eta ez bakarrik "duela 5 urte hasi zen gerra" aipatzea soilik.

Azkenik, landu den azken enkoadrea arrazakeria izan da. Bertan frogatu ahal izan da lau egunkariak ez dietela erreferentzia handirik egiten errefuxiatuek migratzaile gisa sortzen dituzten jarrera kontrajarriei eta Europan hain ugaria den ultraeskuinak hauen aurka duen jarrerari.

Bai inplizituki eta baita ere esplizituki aztertu da hau, eta kontu handiz egin da hauen aurkako adierazpenak identifikatu ahal izateko, era esplizituan izan ez denean, behintzat inplizituan aurkitu zitekeen. Azkenean, emaitza eta ondorio bezala jaso daiteke gehienbat hedabideek ez diotela garrantzi handirik ematen errefuxiatuek sortzen duten arbuiapenari, %13'7an bakarrik ikusi ahal izan baita arrazakeriaren arrastoa (Ikus taula 22).

Enkoadre edo frame hauek aztertu eta gero ateratzen dudana ondorioa da *Gara* dela zuzenen jokatu duen egunkaria, *Berria* gertu ibili da ere, eta *El*

Correo eta *Diario de Navarra* egunkarietan aldiz, orokorrean besteekin alderatu behar badugu, hutsune handiak sumatu dira. Batez ere errefuxiatuen aldeko jarrera falta handia egon da presente azken bi egunkari hauetan, beste bietan baino gehiago. Hala ere, esan beharra dago zenbait erronka dituztela lau egunkariak etorkizunari begira.

6.5 Gogoeta nagusiak

Hasteko, lehen gogoeta nagusia ikerketa honen ondoren izan da hedabideek oso gutxi landu dutela errefuxiatuen gaia, behintzat espero zena baino gutxiago. Beste alde batetik, informazioaren kalitatea askotan kaxkarra izan da. Aztertu diren lau egunkariak, informazio hau lantzeko kazetaritza espezializatuagoa egingo zutela espero zen, eta ez da hala izan. Agentzietako teletipoen, politikarien adierazpen eta datu hutsen presentzia handia gailendu da berriemaile berezien edo kazetari espezializatuen gaineratik.

Hutsunea sumatu da ere iturrien kalitatearen partetik edo errefuxiatuei ahotsa ematerako orduan. Freelance kazetariak izaten dira normalean gertutik honelako informazioak jorratzen dituztenak, gehienetan modu egokienean. Hauen egoera prekarioak direla-eta hedabideen nazioarteko kazetaritzaren kalitateak askotan behera egiten du.

Ez da bidezkoa, aldiz, kazetarien egoera kaxkarra aitzaki gisa erabiltzea nazioarteko gaiez behar den bezala ez komunikatzeko. Beste hedabide txiki askok badute honelako informazioa jorratzeko ahalmena eta emaitza honekin gainera: hala nola, *eldiario.es* hedabide digitalak duen *Desalambre* izeneko atalak, GKEen partetik ere nabarmendu dena zenbaitetan.

Nabarmentzekoa da, dena den, hedabidearekiko independente diren kazetari batzuen lana, gehienetan *freelance* kazetariak direnenak, hedabideen emaitza positibo horien parte bat hauei esker izan baita. Haietako batzuek, soilik euskal herritarrak aipatzearen, nazioarteko kazetaritzaren aldetik lan ona egiten dute eta ikerketa honen barnean dauden artikulua batzuen sortzaile izan dira: Ane Irazabal *Berrian* eta Mikel Ayestaran *El Correon*.

Beste alde batetik, egiletzaren aldetik eta baita protagonistei begira ere, oso garrantzitsua da genero-ikuspegiaren arloan gogoeta bat egitea.

Emakumeen presentzia oso baxua izan da lau hedabideetan. Beraz, hori erronka garrantzitsua da lau egunkarientzako, baita beste edozein hedabiderentzako ere. Gizarte guztian edozein gizabanakok, erakundek edo taldek planteatu behar duten zerbait da, alegia.

7 ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ACNUR. (2014). *Mundo en guerra: Tendencias globales. Desplazamiento forzado en 2014*. UNHCR-ACNUR.

APM (2017). *Informe anual de la profesión periodística*. Asociación de la prensa de Madrid.

BBC, Erredakzioa. (2018). "7 preguntas para entender el origen de la guerra en Siria que lleva años desangrando al país". *BBC Mundo*. Kontsultatu hemen: <http://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-37451282>
[Kontsulta eguna: 2018/04/15]

Berelson, Bernard. (1952). *Content analysis in communication research*. Chicago: University of Chicago.

Aguinaga, Iban. (2017). "La inacción del Gobierno central limita la acogida de refugiados en Navarra". Irailaren 26a. *Noticias de Navarra*.

Camazón, Alba. (2016). *El tratamiento de los medios de comunicación impresos de la crisis humanitaria de los refugiados en Europa*. Universidad de Valladolid.

Perdiguero, Cristina. (2016). *La crisis migratoria y su representación en los medios. El caso de los refugiados sirios*. Gradu-amaierako lana. Madril. Madrilgo Complutense Unibertsitatea

Del Castillo, Natalia. (2015-2016). *Crisis migratoria europea en la prensa española a partir de la muerte de Aylan Kurdi: Un análisis de las fuentes*. Gradu-amaierako lana. Valladolid: La Laguna Unibertsitatea

- Catalan, Esther. (2016). *El sensacionalismo en la prensa española: la crisis de los refugiados*. Gradu-amaierako lana. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. Bartzelona.
- CEAR. (2016). *Informe 2016: Las personas refugiadas en España y Europa*. CEAR. Madril
- CEAR. (2017). *Informe Anual CEAR 2017*. CEAR. Madril
- Davis, Kingsley. (1974). "The migrations of Human Populations". *Scientific American*, 231.
- Del Castillo, Natalia (2015-2016). *Crisis migratoria europea en la prensa española a partir de la muerte de Aylan Kurdil: Un análisis de las fuentes*. Sta. Cruz de Tenerife: La Laguna Unibertsitatea
- EiTB. (2018). "El Gobierno Vasco espera acoger este año a 500 nuevos refugiados". Otsailaren 5a. *EiTB*.
- eldiario.es. (2015). *eldiario.es/Desalambre*. Kontsultatu hemen: https://www.eldiario.es/desalambre/fotografia-retrato-nino-sirio-Aylan_0_426958077.html [Kontsulta-eguna: 2015ko irailaren 3a]
- Gonzalez, Carmen. (2015). *La crisis de los refugiados y la respuesta europea*. Madril: Real Instituto Elcano Royal Institute.
- Entman, Robert M. (1993). *Framing: Toward Clarification of a fractured paradigm*. Evanston: Northwestern University.
- Escalona, Ana Isabel (1995). *El estudio de las migraciones de refugiados. Cuestiones teóricas y metodológicas*. Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea.
- Europako Batzordea. (2015). *Gestión de la crisis de los refugiados: medidas operativas, presupuestarias y jurídicas inmediatas en el marco de la Agenda Europea de Migración*. Bruselas.
- Fassin, Didier. (2015). *La economía moral del asilo. Reflexiones críticas sobre "la crisis de los refugiados" de 2015 en Europa*. Universidad de Princeton: Instituto de Estudios Avanzados.

- Sánchez, Gabriela; Sánchez, Raúl. (2017). “España, entre los estados que más han incumplido su cuota de refugiados junto a los países del Este” *eldiario.es*. Eskuragarrihemen:
https://www.eldiario.es/desalambre/Espana-incumplido-cuota-refugiados-paises_0_690481792.html [Kontsulta-eguna: 2017/09/25]
- GARA. (2017). “Hego Euskal Herria habilitará 451 nuevas plazas para solicitantes de asilo y refugio”. Urriaren 3a. GARA.
- Goffman, Erving (1974). *Frame analysis: An essay on the organization of experience*. Massachusetts: Harvard Unibertsitatea.
- Holsti, Ole R. (1969). *Content analysis for the social sciences and humanities*. Logman Higher Education.
- Irazabal, Ane (2017). “Tunisia: Jasmin zimeldua” A. I. Mikel Ayestaran, *Ekialde Hurbila: muinak eta ertzak*, 196. Andoain: Aleka.
- Abad, J.M; Galán, J; Villar, G. (2016). “El baile de cifras de los muertos de Siria”. Abenduaren 14a. *El País*.
- Lakoff, George (2004). *No pienses en un elefante: Lenguaje y debate político*. Editorial Complutense.
- Mas, Joan (2017). Refugiados afganos en Grecia: fantasmas vivos de una guerra olvidada. Martxoaren 15a. Espainia.
- Mavrikaki, Varvara (2016). *Análisis crítico del discurso sobre las noticias referidas a los refugiados de la crisis migratoria en Europa en la prensa española y griega*. Jaen: Jaengo Unibertsitatea.
- Naïr, Sami (2016). *Refugiados: Frente a la catástrofe humanitaria, una solución real*. Bartzelona: Crítica.
- Lopez, Joaquín; Humanes, Maria Luisa (2016). *Análisis de contenido de la representación fotográfica de la crisis de los refugiados sirios y su incidencia en el framing visual*. Fuenlabrada: Rey Juan Carlos Unibertsitatea.
- Red Acoge (2015). *Estudio sobre periodismo e inmigración. Inmigracionalismo 3. Medios de comunicación: agentes de integración y cohesión social*. Madril:

Red Acoge. Eskuragarri hemen:

http://www.redacoge.org/mm/file/2015/Intervenci%C3%B3n%20Social/Informe_Inmigracionalismo_3.pdf [Kontsulta-data: 2016ko apirila]

Redondo, Myriam (2015). Otro periodismo para las nuevas olas migratorias. *Cuadernos de periodistas*, 57-68.

Reese, Stephen D. (2007). Framing Public Life: A Bridging for Media Research. *Journal of Communication*, 148-154.

Polo, Judith (2015-2016). *Tratamiento de la fotografía de Aylan Kurdi en la prensa española: una comparación entre periódicos*.

Sádaba, T. (2001). "Origen, aplicación y límites de la "teoría del encuadre" (framing) en comunicación" *Communication & Society*, 13.

Lopez, M^a del Mar. (2012). "La Ética Periodística en el tratamiento informativo de la inmigración" *CIC: Cuadernos de Información y Comunicación*, 14.

Tapia, Fatima C. (2016). *El racismo y los refugiados sirios en los diarios El País y ABC*. Sta. Cruz de Tenerife: La Laguna Unibertsitatea

Tarrow, Sidney (2016). *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*. Madril: Alianza Universal.

Tuchman, Gaye (1978). *Making news: A study in the construction of reality*. Free Press.

UNESCO. (2016). www.unesco.org. Communication & Information Sector. Eskuragarri hemen: http://www.unesco.org/new/es/media-services/single-view/news/correcting_media_myths_about_refugees_and_migrants/ [Kontsulta-eguna: 2016/07/01]

Zabaleta Urkiola, Iñaki (1997). *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*. UEU: Bilbo.

8 ERANSKINAK

8.1 Taulen zerrenda

Taula1: Item guztiak kazetaritza-generoka sailkatuta, 2011-2016 (%)	25
Taula2: Protagonisten rola sintesi-lerroka	26
Taula 3: Protagonisten adina informazio eta iritzietan (2011-2016)	27
Taula 5: Protagonisten generoa (sintesi-lerro guztietan)	28
Taula 6: Protagonisten generoa errefuxiatuak direnean.....	28
Taula 7: Errefuxiatuak bakan edo multzoa direnean (2011-2016).....	29
Taula 8: Eduki informatiboetako generoa egileen generoaren arabera.....	30
Taula 9: Errefuxiatuen trataera kronologikoki (2011-2016)	31
Taula 10: Item txikiak argitaratutako urtearen arabera	33
Taula 11: Item ertainak argitaratutako urtearen arabera	33
Taula 12: Item handiak argitaratutako urtearen arabera	33
Taula 13: Ume errefuxiatuen presentzia urtearen arabera	34
Taula 14: Errefuxiatuen jatorria	35
Taula 15: Errukia informazio eta iritzian	36
Taula 16: Errukia protagonistak errefuxiatuak direnean	36
Taula 17: Elkartasuna informazio eta iritzian.....	37
Taula 18: Elkartasuna informazio eta iritzian protagonistak errefuxiatuak izanda	38
Taula 19: Giza eskubideak.....	39
Taula 20: Politika eta legedia informazio eta iritzian.....	39
Taula 21: Gerra eta gatazka informazio eta iritzian	40
Taula 22: Arrazakeria informazio eta iritzian	41